



ARGIA

Hemen da militante euskaltzaleak behar zuen mapa soziolinguistikoa

ZUK USTE BAINO GEHIAGOREKIN EGIN DEZAKEZU EUSKARAZ

» LARRUN: MOBILIZAZIOA-DESMOBILIZAZIOA

» BIZKAIKO ZAHARREN EGOITZETAKO LANGILEEN GREBA

» MOHA GEREHOU: "ARRAZAKERIA JASAN DUGUNOK LIDERATU BEHAR DUGU BORROKA HAU"





PATXUKONICE

ROCK
JAIALDIA



MARTXOAK
LARUNBATA

04

22:30tan



www.pagoa.eus

PAGOA

KAFE ANTZOKIA
OIARTZUN

A: 8€ T: 12€

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,
Pagoa Kafe Antzokia
Donostia: Donosti Rock
Errenteria: Arkaitza Taberna

Internet: pagoa.eus, ticketea.com, Colectivia,
Mauka, oferplan eta www.ticket.kutxabank.es



Pagoa Kafe Antzokia:
Ireka
ostirala, larunbata

17.00tik - 06:00ra
Erreserbak: 619 421 153
@PagoaAretoa
kafeantzokia@pagoa.eus

Pagoalde 7, Ergoien auzoa
20180 - Oiartzun. EH.

2017



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Zor publikoak europarrak itotzen ditu

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Ramon Etxezarreta
- 19 Mikel Irizar
- Itziar Bardaji Goikoetxea
- 20 Julián Jiménez



Otsail osoan greban daude Bizkaiko zahar-etxe pribatuetako langileak. Gatazkaren gakoak aztertu ditugu. (ARGAZKIA: DABI PIEDRA)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
NORMAND BAILLARGEON
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Moha Gerehou: "Arrazakeria jasan dugunok lideratu behar dugu borroka hau, ez ezkerreko zuriek" / Mikel Garcia Idiakez
- 22 | Greba Bizkaiko zahar-etxeetan: Esku nahikorik ez / Dabi Piedra
- 28 | Zenbatek ulertzen du euskara? "Egia eredu"-k dakarren iraultzak badu mapa berria / Pello Zubiria Kamino
- 31 | Osasunaren autogestioa: Medikuairengana joaten ez garenean / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 32 | Antsiolitikoen abusua: Lasaitzeko pilulak, kezkatzeko arrazoiak / Hegoi Belategi
- 34 | 'Eguna', 80 urte: Euskal prentsaren atzoko agonia eta gaurko indarra / Urko Apaolaza Avila
- 42 | Patxi Larrion: "Elipsirik gabe ez zen nire nobela izango" / Mikel Asurmendi
- 46 | Emakumeak Azkena Rock-en: Berdintasunerako neurriek gizonen justifikazioekin topo / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industriadela, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.
Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diegu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).



REUT

Bienvenida
B

ATENCIÓN

PEATONES
EN 1,5 KM



PANORAMA

Injustizian mugalari

Pasa den astean 500 bat pertsonak lortu dute Europar Batasunera sartzea, Ceuta eta Maroko bereizten duen labanez jositako hesiak zaurituta. Tarajal hondartzatik sartu ziren; hesia gainditu nahi zuten 15 lagun hil zituen bertan Guardia Zibilak orain hiru urte. Hesia arriskua eta heriotza da, baina Marokoko milaka emakumerentzat bizimodu bilakatu da. Salerosketarako fardel pisutsua lepoan hartuta, hesian aurrera eta atzera ibiltzen dira egunero 7.000 bat emakume, polizien zelatapean, alde batean zein bestean mafiaren eta tratu txarren mehatxuei aurre eginez. 10 euroren truke.

Argazkia: Ura Iturrialde - Testua: Axier Lopez

Bizkaiko Batzar Nagusien aktak bizkaieraz jasotzea dago baldintzen artean (9. orrian albistea).

“Imajinatzen duzue Andaluziako parlamentuko aktak andaluzieraz jasotzea? Ba gure probintzianismoa horraino iristen da”

@boligorria

“Baina Euskaltzaindia non dabil? Epailea! Txartel Gorria!”

@zaldieroa

“Eguerdian Euskadi Irratian Andres Urrutia euskaltzainburuak esan du ados daudela Bizkaiko Batzar Nagusiekin”

@garaigoikoa

“25 urte inguru da horrela dihardutela Batzar Nagusietan, eta ez dut uste eraginik izan duenik batuaren aitortzan”

@AnaisNi



STOPTIP

CETAren zati handi bat indarrean sar liteke jada

Unai Brea
@unaibrea

Ez zen ustekabekorik izan eta Europako Legebiltzarrak Kanada eta EBren arteko CETA hitzarmenaren alde bozkatu zuen otsailaren 15ean, Estrasburgon egindako saioan. 408 diputatuk eman zuten aldeko botoa, 254k aurkakoa, eta 33 abstentzio izan ziren. Kanpoko aldean, ekintza ikusgarria egin zuten itunaren aurkariak: lurrian etzanda, euren gaintik igarotzera behartu zituzten legebiltzarreko saiora zihoazen parlamentariak, “CETA onartzea herritarrek zapaltzea dela” irudikatzeko.

Behin Eurolegebiltzarrak onartuta, Batasuneko estatu guztiek –zehazki, haien parlamentuek– banan-banan onespena ematea da hitzarmena indarrean guztiz

sartzeko hurrengo eta azken urratsa. Prozesu horrek luze joko du, baina hala ere, EBri bakarrik dagozkion eskumenekin zerikusia duten parteak –CETAren zati handi bat, beraz– aplikatzen has litezke jada.

Europako Batzordearen hasierako asmoa izan zen Eurolegebiltzarraren onespena nahikoa izatea CETA indarrean sartzeko, baina hainbat estatutatik iritsitako presio politikoak zirela-eta amore eman behar izan zuen iazko udazkenean. Hala ere, Cecilia Malmström batzordeko Merkataritza komisarioak erdibide bat lortu zuen: Legebiltzarraren aldeko botoa aski izatea itunaren zati batzuk behin-behinean indarrean sartzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko da nola gauzatzen den hori.

“Ez genuen uste egun batetik bestera haurreskola itxi zezaketenik”

OIER IMAZ, ZIBURUKO LUMA HAURRESKOLAKO GURASOA

Eskualdean, euskarazko haurreskola bakarra da Ziburuko Luma. 12 ume hartzen zituen, bat-batean haurreskola itxita aurkitu duten arte. Luma Elkarteko Administrazio Kontseiluaren erabakia “lekuz kanpoko” dela dio Imazek: “Ez genuen uste zerbitzu publiko bat, oinarriko behar bat, modu horretan eten eta 12 familia aukerarik gabe utzi zitzaketenik”. Zorionez, “Udalak jarrera eraikitzailea agertu du” eta haurreskola berriz irekitzeko elkarte berria ari dira osatzen. **ARGIA.EUS (2017-02-20)**



hainbeste URTE DOKTRINATZEN,
BAIZIK OKUPAZIO-TROPAK
PAZIFIKAZIO-INDARRAK ZIRELA...

ETA AZKENAREN BURUAN
ERRAN BEHAR OMEN DIEGU
BIZIKIDETZARAKO AGENTEAK

honetakoan pasatu egin da SEMIOTIKA-MINISTERIOA





Perun antzututako ehunka mila emakumeren testigantzak jasotzen dituen webgunea

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Fujimoriaren garaian esterilizazioaren biktima izandako emakume indigenei ahotsa emateko proiektu bat sortu dute Perun: Quipu. Telefono deien bitartez testigantzak konpartitzeko eta mundura zabaltzeko aukera ematen die.

1990eko hamarkadan Alberto Fujimori presidenteak esterilizazio kanpaina bat martxan jarri zuen Perun, inguru pobreenetako jaiotza-tasa gutxitzeko helburuarekin. Genozidio eta gizateriaren aurkako krimenak egotzi zizkieten. 272.028 emakume antzutu zituen lau urtean, gehienak indigenak. Haien historiak, baina, isilduta egon dira urteetan, ordezkariak instituzionalik ez dutelako, eta erakundeetan euren hizkuntzak, kitxuak, ez duelako tokirik. Orain, Fujimoriaren dimisiotik bi hamarkada igaro ondoren, ahotsa eta babesa lortu dute, testigantzak batzen dituen egitasmoari esker.

Inkek zerabiltzaten kontabilitate sistema batek inspiratu ditu sortzaileak: Kipua, sokekin eta korapiloekin sortutako komunikazio tresna zaharra. Doako telefono linea baten bitartez, emakume

indigenek euren historiak kontatu eta besteenak entzun ditzakete. “Mezu bakoitza soka bat da, erantzun bakoitza korapilo bat”, diote webgunean.

Lehenengoz etxeko lau paretetatik ateratzen diren lekukotzak

Testigantza horiek Londresen dagoen talde bati heltzen zaizkio, eta hark transkribatu, itzuli eta mundu osora zabaltzen ditu, sarearen bitartez. Kasu askotan, historiak emakumeen etxeko lau paretetatik ateratzen diren lehenengo aldia izango da.

Peruko eskualde kaltetuenetaraino joaten dira Quipu taldeko partaideak, Andeetako eta Amazonaseko herrixka behartsuenetaraino. Gero eta lekukotasun gehiago lortzen ari dira, eta aurrera-pausoak ematen jarraitzeko asmoa dute, auziak zabaltasun globala har dezan. Proiektuaren azken helburua memoria kolektiboko artxibo bat sortzea da, antzutzearen arazoa argitara ateratzeko eta gertatutakoa inoiz ez errepikatzeko. Biktima bakoitzarentzako justizia eta erreparazioa ere eskatzen dute. Proiektuaren sortzaileek Amnesty Internationalen babesa dute eta tokian tokiko emakume erakundeekin elkarlanean ari dira.

EKONOMIAREN TALAIAN

Hau al da gure ongizate eredua?



Juan Mari Arregi

Euskal Herrian pobrezia badago, eta haurren pobrezia ere bai, euskal oasian gaudela eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta eta antzekoekin babes sozialerako sistema publiko ona dugula pentsatu arren. Hala da, neska-mutikoen %9 pobrezian dago, EAEn 24.000 haur lirateke eta Nafarroan 7.000. Datu horiek Save The Children erakundeak eman ditu, haurren arteko desoreken, berdintasunerako aukeren eta politika publikoen inguruko txosten batean. Txostenak ez du ezer esaten Ipar Euskal Herriari buruz, nahiz eta badakigun berdina dela egoera.

Pobrezia maila handiena jasaten duten eta laguntza gehien behar duten haurrak lana lortzeko aukera gutxien duten familietakoak dira, normalean guraso bakarrekoak eta atzeritarrak. Txostenaren ardura-dunek diotenez “ez babes sozialerako politika publikoak, ezta sistema fiskala ere, ez daude diseinatuta desoreka murriztu eta pobreziarekin amaitzeko”.

Datu horiek ezagutarazten ziren une berean, jakin genuen ez dagoela benetako interesik gobernu eta foru diputazioen aldetik –patronalarekiko fidel, beti bezala– pausoak emateko erreforma fiskal justu baterantz: ez dute elkarteen gaineko zerga zamatzeko asmorik. Diru-kutxa publikoei ekarpen handiena lan errentek egiten diete, eta kapital errentek haien hamarrena baino ez dute jartzen. Hala, urtean 900 milioi euro gutxiago biltzen dira Europako batez bestekoa-rekin konparatuta. Horrela ezinezkoa da pobrezia desagerraraztea eta desberdintasuna gutxitzea.

Hori al da Euskal Herrian nahi dugun ongizate eredua? Zeinen interesak ari dira defendatzen gure politikari eta gobernuak? Haien ekintzak ikusita behintzat, patronalarenak eta errenta altua dutenenak.



TERJE LISLEVAND

Gizakiok itsasora botatako plastiko zatiek balea bat hil dute

NORVEGIA. Itsasora botatako hondakin plastikoak eragiten ari diren triskantzen froga gordina Norvegiatik etorri zaigu: bi tonako balea baten sabelean 30 poltsa, litxarrerria zorro eta bestelako plastikozko hondakinak aurkitu dituzte. Baleak luzez sufritu duela adierazi du Terje Lislevand zoologoak: "Oso tristea da bere heriotza, plastiko hondakinak sabelean gutxika-gutxika pilatu dira, harik eta bere urdaila guztiz blokeatu duten arte. Gosez hil da".

Bizkaiko Batzar Nagusien aktak, bizkaieraz

Argia

Urtarrilaren amaieran egin zen publiko Bizkaiko Batzar Nagusietako lan saioak, argitalpenak eta bestelako dokumentuak transkribatzeko zerbitzuen lizentzio-iragarkia, eta arreta deitu du baldintzetako batek: testuen itzulpena bizkaieraz egin dadila agintzen du baldintza teknikoaren pleguak.

Jarraibideak

Kontratuaren aurrekontua 250.000 eurokoa da eta pleguaren arabera, "testuen euskarazko itzulpena bizkaieraz egingo da, Bizkaiera.biz atariko 'Bizkaieraz idazteko jarraibideek' ezarritako irizpideen arabera".

Hamabost puntu

Pisu handia du bizkaieraz egiteak kontratu publikoa adjudikatzeko balorazio-irizpideetan: 15 puntu. Konparaketarako, interbentzioetan esaten dena "fideltasunez eta naturaltasunez" jasotzea gutxiago puntuatzen da.

Ahozko diskurtsora egokituak

Bilkuren eguneroan "idatzizko forma ahozko diskurtsora egokitzea" ere bost punturekin sarituko da, "eusalkia edo estandarra errespetatu parte-hartze bakoitzean".

ERRAUSTEGIA



10.000

lagunetik gora bildu dira Donostian, antolatzaileen arabera, Zubietako erraustegiaren gatazkarako irtenbide adostua eskatzeko. GuraSOsek deituta eta "Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna besterik ez!" lelopean, herritarren nahia errespetatu behar dutela gogorazi diete agintariei.



INDARKERIA MATXISTA

Igande goizaldean adingabe bat bortxatu zutela jakinarazi du Tolosako Udalak. 20 urteko gizon bat atxilotu dute eta gertatutakoa salatzen elkarretaratzeko egin dute herrian.



"HIRIGINTZA PELOTAZOA"

Auzitegiek zigortu egin dute Garbiñe Elizegi Baztango alkate izandakoa, Aroztegia proiektua "hirigintza pelotazo" bat dela esateagatik: 1.000 euro ordaindu beharko ditu Aroztegia Jauregiaren "izen onean legez kontra" esku sartzeagatik.



ALTSASUKO ATXILOTUAK

Argi itzalaldi batekin gogoratu dituzte Altsasun duela hiru hilabete hainbat Guardia Zibilekin izandako borrokaren ondorioz atxilotutako eta espetxean dauden hiru gazteak. Haien askatasuna aldarrikatu dute.

Zor publiko bidegabeak Europako udalak eta jendeak ere itotzen ditu



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Bruselan zortzi orduko eztabaida-maratoia burutu dute argitzeko nola estatuak beren gain hartutako zor ez-legitimoek murriztarazten dituzten zerbitzu sozialak eta herritarrak menpekoago egiten. Hirugarren Munduaren zorpetzea ikertzeko sortutako CADTM elkarteak salatu du orain korporazio handiek goi mailako politikariekin elkar hartuta finantza bonba bera darabiltela lehen munduko gizarteetan.

Martxoan joatekoak dira Europako Legebiltzarrerara Espainian sortu berri den zor publiko bidegabearen aurkako udal elkarteko ordezkariak. Hori jakinarazi dute urtarrilean Iruñean burutu diren *MAK2 Munizipalismoa, Autogobernua eta Kontraboterea* jardunaldietan. Podemos alderdiak –erkidego autonomoetan dauzkan marka ezberdinak barne– Espainiako udaletan dituen kargu politikoak ari dira bultzatzen zor bidegabeari buruzko eztabaida, azterketa eta behatokiak. Lan horietan aitzindariak izan dira PACD Zorraren Herri Auditoria Plataforma espainiarra eta CADTM Zor Bidegabeak Ezeztatzeko Komitea, mundu osoan zabaldua dagoena.

Liderrik ezagunena Alain Toussaint belgikarra duen CADTM 1990ean sortu zen lehen mundu aberatsak herrialde txiroei historian zehar ezarritako zor bidegabea salatzen; bere siglen azken bi hizkiek *Tiers Monde* esan nahi dute, Hirugarren Mundua. Geroztik, eta nabarmenago 2008an krisi handia lehertu zenetik, ikusi da munduko eliteek tresna berdintsuak erabiltzen dituztela herrialde aberatsetako finantza publikoak zurrupatzeko. Grezia itotzear daukan zorpetze erraldoia deslegitimatzen lan handia egina du CADTMk: agintea hartu berrian Alexis Tsiprasek eskatu zion laguntza greziarren zorraren auditoria egiteko, nahiz eta azkenean Syrizarren gobernuak *Troikak* ezarritako memorandumua irentsi behar izan.

CADTMk abenduan antolatu zuen “*8h contre la dette*” zortzi orduko maratoi luzea gaiaz eztabaidatzeko militante, Europa osotik iritsitako elkarten ordezkari eta herritar interesatuen artean. 300dik gora jenderen bilkurari hasiera eman zion Silvia Federici militante feminista ezkertiar munduan ezagunak, ondoren berak gidatzeko atelirretako bat: “*La dette, arme fatale du capitalisme*”.

Historiari erreparatuz, Federicik azaldu zuen nola aldatu den azken mendearen zorpetzea. XX. mende hasieran kreditua soilik lortu zezaketen hura ordaintzeko ahalmena demostratzen zutenek, diru iturri finkoak zituzten jende urriek alegia, baina gero kontsumo gizartea indartu ahala zabaldu ziren zorrak ere jende arrunten artean. Zor publikoari dagokionez, 60 eta 70eko hamarkadetan langileentzako enpleguak sustatzeko erabiltzen bazen, azken 30 urteetan langabezia zabaltzeko usatu da.

Zorra tresna politikoa da ekonomikoa adina. Ekonomiaren norabidea nahasi du, eredu produktibista eta *estraktibista* sustatu, ekonomia pribatizatzen erabili, herritarren txirotze masiboa ekarri. Nazioartean asko erabilia da, herritarren erreakzio gutxiago sortu eta desmobilizatzailea delako.

“Zorrak –esan zuen Federicik– zampaketa ezkutatu eta jendeak isolatzen ditu. Soldataren aldeko borrokan sartuta dagoen langilea ohartzen da nozitzen duen injustiziaz eta kolektibitate baten parte

sentitzen da. Aldiz, zorretan sartuta dagoena agertzen da diru bat bere probetxurako xahutu duen norbait bezala. (...) Zor publikoaren eta pribatuaren arteko lotura garbia dago, azkenean jendeak zorretan sartu behar baitu Estatuak eman beharko lizkiokeen zerbitzuak bere kasa eskuratu ahal izateko. Baina ez dira oharitzen bankuek egiten dieten zampaketa, errudun sentitzen dira gehienetan, pentsatuz zorrak egin dituztela kudeaketa txar baten ondorioz”.

Lapurreta ondo mozorrotuak

Genero osagaia ere badu zorrak, Federicik argudiatzen duenez. Kalterik handienak egiten dizkie obreroei, munduko Hegoaldeko jendeei, beltzei –Federici AEBetako da– baina denen aurretik zorrak kolpatzen ditu emakumeak: independentzia ekonomikoa lortzeko borrokan atzera eragin die eta menpekotasuna handitu, batik bat etxeko lanetan.

Zorpetze publikoaren aitzakiatan estatuak zerbitzu sozialak murrizten dituztenean, lehen eskueran zeuden zerbitzuak kaltetzen dituzte: haurren zaintza, gaixoen artatzea, zaharrei lagundu beharra... Emakumeei, batetik, etxeko lan bihurtzen zaizkie horiek denak eta bestetik, justu lan horiek besteren etxeetan egiten ere emakumeek hasi behar izan dute miseriazko soldaten truke, txirotze orokorraren barruan beren familiak aurrera ateratzeko.

Populazio kontrolerako ere balio du zorpetzeak, mundu aberatsean bezala





CADTMk interneten jarritako bideotik hartu irudian, ezkerretik hasita Silvia Federici hizketan, Noémie Cravatte eta elkartearen fundatzaile Eric Toussaint, Bruselan abenduaren 6an burututako 8 orduko eztabaida maratoian. Mahaian idatzirik: "Ez dugu ezer zor. Ez dugu ezer pagatuko. Ezabatu dezagun zor ez-legitimoa". Batzarrean hitz itzaropentsuz aipatu ziren Espainian zor bidegabeak auditatzeko sortu diren plataformak, menturaz European Podemoseko jendeak pizten dituen espektatibak direla eta.

txiroan. Federicik dioenez, karrera ordaintzeko prostituziora jo behar duten ikasle gazteak, gainera, zorrak antzutu- ta ere sentitzen dira, ezin dute amestu ama izatea hil arteraino zorrari lotuta bizitzekotan. Beste askok beren uteroa alokatu behar diote ume subrogatuen industriari, horra emakumeen gorpuzaren komertzializazio berri bat.

Eric Toussaintek aspalditik aldarrikatzen du uko egin behar zaiola zor publiko ez-legitimoak pagatzeari, dirua txiroei kendu eta kapitalistei oparitzeko onpa baizik ez direlako. Lapurreta doblea. Bat, zor publikoak administrazioek langileei kendutako zergen diruz ordaintzen dizkiete banku handiei, onurak batik bat kapital handiari ekartzen dizkieten proiektuak pagatzeko. Bi, estatuek bankuei barkatzen dizkiete gastu horiekin irabazitako etekinen zergak,

opari fiskalen bidez, eta kapitalista handiek zergetatik aurreztutako dirutzak inbertitzen dituzte zor publiko haboro erosten, langileek berriro pagatu beharko dituztenak beren sakeletatik.

Zor publiko bidegabearen gakoetako bat da, Toussainten aburuz, langileari ikusezin egiten zaiola lapurreta: "Soldataren gaineko zerga berri bat berehala ikusten da, nagusiak egindako gehiegikeria bat ere bai, baina zor publikoaren ordainketaz askoz nekezago ohartzen gara, ez baitugu pagatzen zerga berezi bat zor publikoaren pagakizunetarako. Eta hala ere, pagatzen ditugun zergen parte handi bat zor publikoa ordaintzeko dira". CADTM bezalako elkarteen lehentasunetako bat, hain zuzen, lapurretari mozorroa kentzean datza.

Zorraren herri auditoria erabiltzen dute nagusiki, ahalik eta herritar gehie-

nei azaltzeko zorpetze publikoaren jatorria eta auzitan jartzeko horren parte ilegal, ez-legitimo, gorrotagarri edo ez-iraurkorra. Baina herri mugimenduak lan konplexu hori burutu ostean, zorpetzetik askatzeko nahitaezko baldintza da agintariak prest egotea urrats ausartak emateko.

Toussaintek bi esperientzia justu kontrako aipatu zituen hitzaldian. CADTMk 2007an lagundu zion Ekuadorreko Rafael Correarari zorraren auditoria egiten, eta honek finantz erakundeei gogor eginez lortu zuen herrialde haren zor erraldoia negoziatuz txikiagotzea. Kontrakoa gertatu zaió Grezian. Gobernuari lagundu zion 2015ean *Troikari* aurre egiteko argumentazioa antolatzen, baina Alexis Tsipras ez zen ausartu enbidoari eusten eta Greziari zorraren zama handitu baizik ez zaió egiteko. ■

50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Moha Gerehou, aktibista eta kazetaria

“Arrazakeria jasan dugunok lideratu behar dugu borroka hau, ez ezkerreko zuriek”

Unibertsitatera bidean zihoala beltza izateagatik poliziak identifikatuarazi zuenean erabaki zuen aktibista bihurtzea. Garai nahasiotan, faxistak txoriburutzat hartu eta gutxietsi izana akatsa dela uste du, eta eskuinaren zartakoei erantzuten aritzea baino, herritarrak benetan kontzientziatzea lortuko duen diskurtso propioa garatzea dela bidea.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Esklabo gisa enkantean jarri zaituzte eta heriotza mehatxuak ere jaso dituzu sare sozialetan.

Kasurik larrienak dira horiek, baina nire egunerokoan etengabe iraintzen naute: “Itzuli zure herrialdera”, “isildu zaitetz, beltz puta”... Azkenean ohitu egiten zara eta jada erantzun ere ez diet egiten. Mehatxuak bai, salatu egin nituen, baina justizia ez dago arrazakeriari aurre egiteko prestatuta. Indarkeria matxistari aurre egiteko epaitegi espezializatuak, araudi espezifikoa edota telefono zuzenak dauden moduan, arrazakeriaren kasuan ere abiapuntu hori beharko genuke. Arrazakeriaren biktimak sarri ez daki gorroto delituen fiskaltza dagoenik ere, oso erakunde marjinala da, eta askotan epailearen kontzientziazio mailaren esku geratzen da zigortzea edo ez, baina ez luke horrela izan behar: araudi garbia behar genuke, ekintza jakinek automatikoki epai zehatza izan dezaten. Irain eta mehatxu arrazistak sistema-

tikoak dira eta gehientsuenak artxibatu egiten dira: gizarteari ematen zaion mezua da hutsaren truk ateratzen dela norbaiti bere azal koloreagatik denetik esatea, eta inpunitate horrek diskurtso arrazista legitimatzea dakar.

Zuk zeuk artikulu batean zure buruari egiten diozun galdera egingo dizut: “Nola pertsegitu modu eraginkorrean gorroto delituak, adierazpen askatasuna mugatu gabe?”.

Dilema hori ziurrenik sare sozialetan islatzen da ongien: jendeak komentario arrazista, matxista, homofoboak idazten ditu eta gero adierazpen askatasuna dela dio. Baina zein punturaino da adierazpen askatasuna eta zein punturaino gorroto delitua? Gaizki aplikatu izanaren bi muturrak ditugu: César Strawberry Def con Dos taldeko abeslaria terrorismoaren biktimak iraintzea leporatuta epaitu zutenean, araudia- ren gehiegizko aplikazioa egin zela uste

du, eta aldiz, gorroto delitu oso argiak adierazpen askatasuntzat hartu ditu justiziak. Inportantea da justiziak muga garbia zehaztea, hona arte adierazpen askatasuna da eta hemendik aurrera gorroto delitua, ez dadin egon epailearen kontzientziazio mailaren esku.

Mohamed Gerehou

1992, Huesca (Aragoi)

24 urterekin, Madrilgo SOS Arrazakeria elkarteak inoiz izan duen presidente gazteena da. 80ko hamarkadan Gambiatik Aragoira migratu zuten bere gurasoek, Huescan jaio zen bera eta Madrilen bizi da egun. Eldiario.es-en dabil kazetari eta egunkariko aurkezpen orrian dioenez, “berdin dio zein gai jorratzen duzun, pertsonen ikuspegia da inportanteena, gero dator gainerako guztia”.



» “Ematen den mezua da hutsaren truk ateratzen dela norbaiti bere azal koloreagatik denetik esatea, eta inpunitate horrek diskurtso arrazista legitimatzen du”

» “Jendeak dio eskoletan aniztasuna dagoenez ez dela arrazakeriarik emango, baina elkarrekin egotea ez da nahikoa, atzean dibertsitate politikak ez badaude. Ama, arreba... ere baditugu, eta gure gizartea oso matxista da”

» “Ohitu gara pentsatzera nazi ergel batzuk direla, baina areagotzen ari diren mezu ultraeskuindarren aurrean ez dugu jakin alternatiba sendorik eraikitzen. Arrazakeria, homofobia, matxismoa... sufritzen duen jendea bilduko duen diskurtsoa eraikitzea falta zaigu”

» “Uzten zaigun rol bakarria biktimarena da: jasandako arrazakeriaren lekukotasuna eman eta segidan hitza hartuko dute aditu zuriek, iritzia eta soluzioak emateko”

Arazoa da muga horren irizpideak zeinek eta zeren arabera jartzen dituen, ezta?

Hala da, arrisku handia dago interes jakinen arabera egiteko eta politizatzeke. Horregatik da garrantzitsua lege hauek egitea elkarte sozialen parte-hartzearekin. Esaterako, Diskriminazioaren Aurkako Legea horrela egin zen eta gutxieneko mekanismo batzuk bermatzeko balio izan zuen. Kontua da gero PP gobernura iritsi eta bertan behera utzi zuela legea.

Arazakeria estrukturala dela irakurri dizut.

Ijitoa bazara poliziak zuri bati baino hamar aldiz gehiago geldituko zaitu kalean Espainiako Estatuan, beltza bazara zortzi aldiz gehiago, arabiarra bazara zazpi aldiz gehiago... Lagunak ditut poliziak 10-11 urterekin gelditu dituztenak dokumentazioa eskatzeko! Diskotekan sartzea ere debekatu izan didate; makina bat adibide jar ditzaket. Hedabideetan, erabiltzen ditugun espresioetan... arrazakeria asko dago, kontziente eta inkontzienteki. Baloreetan eta dibertsitatean formatu behar dugu jendea.

Justizia eraginkorraz gain, formazioa da orduan soluzioa?

Soluzioaren bi hanka funtsezko dira behintzat. Jendeak dio eskoletan gaur egun jatorri eta azal kolore anitzeko ikasleak daudela eta elkarrekin hezten badira ez dela arrazakeriarik emango, baina elkarrekin egotea hutsa ez da nahikoa, atzean dibertsitate politikak ez badaude. Ama, arreba... ere baditugu, eta gure gizartea oso matxista da. Eskolan, kulturantzatasuna lantzeko ohiko jarduerak bat da bakoitzak bere herrialdeko janariaren bat eramatea, baina horrela ezberdintasunak azpimarratzen ari zara, eta interesgarriagoa litzateke Senegalgo jatorria duen ikasleak Bilboko janaria eramatea, Argentinakoak Errumaniakoa eta abar. Adibide txiki bat baino ez da, arlo honetan apenas egiten delako ezer ikastetxeetan. Ikasleei esaten zaie arrazakeria gaizki dagoela, baina kontzeptualki hitz egiten da, ez da azaltzen arrazakeria horren errealitatea.

Errefuxiatuen krisiak eta populismo xenofoboak hauspotuta, lotsagabeagoa bihurtu al da jarrera arrazista?

Aurreiritziak hor zeuden eta hor daude, baina azken boladan diskurtso horiek legitimatzeko modua aurkitu du jende

batek. Migratzaileak bortxatzaileak dira, diru-laguntzetatik bizitzera datoz, guri lana kentzera zu langabezia zauden bitartean... Dena komeni bezala nahasten duten diskurtso horiek onarpena dutela ikusi dute politikariek, hortik etekina atera dezaketela, hein handi batean krisi ekonomikoak eraginda eta beste hein batean gizartearen aniztasuna handitu egin delako eta hainbatek mehatxutzat ikusten duelako aniztasun hori. Arazoa da areagotzen ari diren diskurtso horien aurrean ez dugula jakin alternatiba sendorik eraikitzen, tolerantzian, aniztasunean eta inklusioan oinarritua. Sarri, haien diskurtsoei erantzutea da erreakzioa, eta duela gutxi ikusi dugu nola Donald Trumpen erabakien aurrean lelo nagusietakoa *Resist* izan den, baina haiek zerbait egiten duten aldiro gu mobilizatzea daukagunari eusteko ez da bidea. Arrazakeria, homofobia, matxismoa... sufritzen duen jendea bilduko duen diskurtso alternatiboa eraikitzea falta zaigu. Borroka bakoitzak bere berezitasunak dituen arren, gauza asko partekatzen ditugu, eta denen artean gehiengo sozialari iritsiko zaion mezua garatu beharko genuke, ultraeskuineko mugimenduek ez ditzaten jarraitzaile gehiago lortu.

Artikulu batean diozunez, politikariek bakarrik ez, herritarrek ere erabiltzen dituzte antzeko diskurtsoak, politikoki ez-zuzena izateko eskubidea eldarrikatuz.

Bai, jende bat kezkatzen auzartzen duzu, gaur egun ezin dela politikoki ez-zuzena izan, bestela kolektibo kulturantzak, feministak edota LGTB komunitatea gainera botatzen zaizkizula. Baina nik ulertzen dut gehiengoak duen iritziarekin bat ez datorren iritzia dela politikoki ez-zuzena, aldiz esatea emakumeek heriotza merezi dutela edo beltzak gaizkileak direla ez da politikoki ez-zuzena izatea, baizik matxista eta arrazista izatea. Ez da kasualitatea ez-zuzentasun politiko hori zapaltzaileek aldarrikatzea eta gainera euren burua biktimizatzea, maila berean jarriz halakoak botatzeko daukaten askatasuna eta kolektibo irainduek egiten duten tolerantziaren defentsa. Gai izan behar dugu horri buelta emateko, ikusarazteko ez direla biktimak, zapaltzaileak baizik.

Ohitu gara pentsatzera nazi ergel batzuk direla eta gure nagusitasun moraletik begiratzera, gure diskurtsoa hobea dela eta azaldu beharra ez dagoela sine-tsita; ezkerreko jende batek duen arazoa



“Trumpen kontrako borrokak lortu du borroka asko bakarrean artikulatzea. Interseksionalitatea bideratzeko eta mugimenduak elkartzeko gaitasuna badagoela ikusi dugu”.

da. Bitartean, diskurtso ultraeskuindarra hazten doa eta azkenean legitimatuta geratzen da gizartearen zati handi batentzat. Hor dugu Madrilgo Hogar Social [migratzaileen aurka gogor egiten duen mugimendu faxista]: “Hitlerren garaiko ideiak dituzten lau katu burugabe dira”, genioen, baina pixkanaka hazten joan dira, enplegu poltsa sortu dute, hedabideetan oihartzuna daukate, hurrengo urratsa izango da alderdi politiko bat sortzea... Prozesu hori guztia ikusten joan gara, eta ez dugu ezer egin, ez gara gai izan kontrako diskurtsoa eraikitzeko, akatsa izan da jende hori gutxiestea. Hogar Socialen azken manifestazioa ikustera joan nintzen eta bertan zeudenak nire dendaria edo gimnasioko monitorea izan zitezkeen, diskurtso hori sektore ultratik gizartearen esparru zaba-lagoetara iritsi delako.

Kritikoa zara zure buruarekin...

Geu gara errealtate hau askoz gehiago ikusarazteko lan egin behar dugunak. “Erru guztia PPrena da” esan nezake, baina zer egin dut nik errealtatea aldatzeko? Zer egin dut, PPK bereganatu duen espazio hori neureganatzeko? Gaizki dagoena identifikatzen badakigu, baina autokritikarik gabe, beti izango gara *resist*, beti izango gara boterean dagoenaren kontrapuntua.

Ezkerrarekin ere kritikoa zara eta hala islatu duzu Ezkerraren autokonplazentzia arrazakeriaren aurrean artikuluan.

Errefuxiatu eta migratzaileei buruzko hitzaldi sorta batera joan eta agian ez dago errefuxiatu ez migratzaileek hizlariaren artean. Parte hartuko dute arrazakeriaren inguruan ikerketaren bat egin duenak, gaiok jorratu dituen epaileren batek... eta arrazakeria sufritu duen jendeari espazio hauetan uzten zaion rol bakarria biktimarena da: jasan duen arrazakeriaren lekukotasuna emango du eta segidan hitza hartuko dute inguruko aditu zuriak, horri buruzko iritzia emateko eta soluzioak proposatzeko. Zergatik ez eskatu arrazakeria jasan eta errealtate hori bertatik bertara ezagutzen dutenei soluzioak proposatu ditzatela?

Historikoki, ezkerak bere egin du nire ustez ez dagokion lidergoa, zuriak lideratu dute arrazakeriaren aurkako borroka, eta garai batean aitzakia izan zitezkeen beltz gutxi zegoela, baina orain oso prestatuta dauden eta aktibistak diren latinoak, arabiarak... soberan daude. Eta jende honi hitz egiteko eta proposamenak egiteko aukera ematen badiuzu eta dituen trebeziak bistartzen baditu, pixkanaka ikusgarritasuna irabazten joango da eta errazagoa izango du aldaketak eragiteko gaitasuna du-

ten erakundeetara eta botereguneetara iritsi ahal izatea. Aldiz, pertsona horrek duen aukera bakarria baldin bada behin eta berriz biktima bezala bere kasua kontatzea, soilik biktima gisa irudikatzeaz gain, zein aldaketa eragin dezake?

Kurioso da, gogoan dut Madrilgo CIEko gertakarietan [Atzerritarrak Barneratzeko Zentroan zeuden hainbat migratzaile teiltura igo ziren, bertan jasaten duten tratu bidegabea salatzer] Podemoseko agintariak nola errepikatzen zuten aspalditik ari zirela CIEak ixteko borrokan. Gezurra, inoiz ez ditut CIEi buruz hitz egiten entzun, hori gertatu zen arte. Aukera ona zuten CIEa gertutik ezagutzen dutenekin talde bat sortzeko, barruan egon den jendeari... parlamentura hitz egitera joan zitezen, soluzioak planteatzera. Horren ordez, eurak hartu zuten protagonismo guztia.

Funtzionatzeko modu horren ondorioz ere pisu handia izan du alde instituzionalak eta pisu txikia alde sozialak. Aldarrikapen asko erakundeei egiten zaizkie, Europar Batasunari, Espainiako Gobernuari... baina erakundeetan ditugun ordezkariak ez dute gaiarekiko sentsibilitaterik. Aldiz, instituzioetara hainbeste begiratu ordez daukagun errealtate sozial anitzari erreparatu beharko genioke, borroka kalean

egin eta indarrak bateratu, zenbat eta jende gehiago kontzientziatu orduan eta handiagoa izango baita instituzioei egin ahalko zaien presioa, behetik gora.

Borroka honetan, zein da zurion lekua? Nafarroan, Elhadi Ndy senegaldarra poliziaren esku zegoen bitartean hil zela-eta, kasua argitzeko manifestazioa egin zuten eta apenas zegoen zuririk parte-hartzaileen artean...

Beste era batera ere ikus daiteke: ikusgarritasuna eta kalea beltzek hartu zuten,

zuzenean eragiten dien egoera bat salatze-ko. Adibide bat jarriko dizut: Madrilen Afro Espazioa dago, eta bertan pertsona afroek hitz egiten dugu, guri eragiten diguten kontuez. Indarkeria matxistaren kalteez hitz egiteko espazio bat baldin badago, logikoa iruditzen zait emakumeek hitza hartzea eta nire ekarpena, gizon bezala, entzutea izatea. Nafarroan bat-batean migratuek hartu dute lidergoa eta beharbada zuri batzuk baztertuak sentitu dira, baina borroka birpentsatzea da gakoa, kolektiboari babesa ematea da orain dagokiena.



Azken hitza: Hedabideak

“Gizartean beltz profil jakin bat zabaltzen lagundu dute hedabideek: albisteetan, migrazioari, kirolari, musikari edota delinkuentziari lotuta aurkituko dituzu beti. Eta azkenean jendeak ikusten zaitu eta pentsatzen du edo saskibaloian jokatzeko dakizula, edo pateran etorri zarela, edo poltsa ondo heltzen du lapurtuko diozulakoan. Non daude hedabideetan mediku beltzak edo beste edozein arloko aditu beltzak, arlo horri buruz hitz egiten?”

Futboleko dagoen arrazakeriaz ere idatzi izan duzu, jokalariek beltzak iraintzeko tximuarena egiteko ohitura tarteko. Jarrera matxista eta homofobo ugari ere ikusten da harmailetan. Bereziki matxtoa eta atzerakoia al da futbol mundua? Gizartearen isla okerrera?

Duela gutxi emakume arbitro bat iraindu du ikusle batek eta ondoren eman duen arrazoa izan da etxean ezin duela emaztea iraindu. Badirudi futbol estadiokoan eta bestelako eremuetan esan eta egingo ez zenukeena egiteko. Publikoak ateratako kartel matxista eta arrazisten adibideak asko dira, baina ez da neurririk hartzen. Eta kirolariekin ere kritikoa naiz, ematen duelako ezin dutela ideia politikorik eduki. Harmailetatik zelaira platano bat bota zutenean, Neymarrrek salaketa modukoa abiatu zuen sare sozialetan, platano bat jaten, baina urte hauetan guztietan ez dugu arrazakeriaren kontrako jarrera tinkoagorik ezagutu futbolarien artean eta lotsagarria iruditzen zait; NBA jokalariek segituan egiten dituzte adierazpen kritikoa, arrazakeri kutsu txikiena ematen bada, edo aho bilorik gabe hitz egiten dute Trumpen migrazio politikaren aurka. Hemen aldiz, jokoaren parte balitz bezala tratatzen dute dena, baina ez da gauza bera jokalariei publikotik “herrena” deitzea edo “beltz puta” deitzea. Halako zerbait gertatzen den bakoitzean zelaitik aterako dela esan dezake jokalariek; ezer egiten ez badu, idolotzat duten haurrek pentsatuko dute futbola horrelakoa dela. Eta ez, gizartean onartzen ez dena ez litza-teke futbol-zelaian onartu behar.

Zapalduak diren kolektiboek diskurtso bateratua behar dutela diozu. Borrokan arteko aliantza gehiago behar dira?

Diskriminazioak kaltetutako kolektiboak oinarri batzuen inguruan elkartu eta indarrak batuz aurrerapausoak lor ditzakegu, eta gero mugimendu bakoitzak bere berezitasunetatik egin dezake borroka. Arrazoi bategatik edo besteagatik esko gara diskriminatuak eta ongi antolatuta gehiengo soziala lor dezakegu. Trumpen kontrako Emakumeen Martxetan, borrokaren ardatza emakumeak izan arren homofobia, xenofobia eta bestelako zapalkuntzak salatzea ere atera zen jendea, kolektibo ezberdinek elkar babestu zuten eta Trumpen aurkako borrokak lortu du borroka asko bakarrean artikulatzea. Interseksionalitatea bideratzeko eta mugimenduak elkartzeko gaitasuna badagoela ikusi dugu. ■

Egia ostea eta egia

Trumpek irabazi du Ameriketako Estatu Batuetan (AEB). Rajoyk irabazi du Espainian. Kolonbian bake-prozesuko akordioari ezetz esan diote. EAJk irabazi ditu EAeko hauteskundeak. Britainia Handian Brexita izan da nagusi. Podemos izan da EAeko lehen indarra hauteskunde espainiarretan.

Oxford hiztegiak 2016ko berbatzat jo du *egia ostea* edo post-egia (ingelesezko *post-truth*), gertaera horietako zenbaiti azalpena eman diezaiokeelakoan. Ez denei, dirudienez. Batez ere Brexita, Trumpen garaipena eta Kolonbiako ezetza zerrendatzen dituzte adibide gisa. Egia ostea zera ei da: iritzi publikoa mezu emozionalen eta norbanakoen usteen arabera egitura-tzea, datu objektiboetan edo egitate frogatuetan oinarrituta baino. Berriasuna duen fenomeno gisa aurkeztu digute, nahiz eta propagandaren mekanismo nagusienetakoa beti izan den emozioak manipulatzeko eta jendartearen sinesteak elikatzea, gero eurekin konektatzeko.

Propagandaren parekoa ez bada, zer da orduan post-egia? Zein dira jazoera bat egiaren ostekotzat jotzeko ezau-garriak? Gainerako erabaki politiko guztietan arrazoiak sakona al da erabakien gidari? Zertara dator hitz berria? Egia gainditu duena zer den esaten zaigunean, aurreko egia edo egia bera zer den esaten zaigu inplizituki. Nik ateratako ondorioa honakoa da: post-egiatzat hartzen dira komunikabide handiek eta ohiko botere-egiturek aldeztutako jarreraren aurka doazen erabakiak. Hori zen, antza, "lehengo egia", elite politiko eta mediatikoaren egia. Terminoa ontzat ematea, hortaz, hedabideen objektibotasun erabatekoan sinestearen parekoa litzateke, orain arte informazioa propagandaren atzaparretatik at egon dela irenstea. Ja! Desinformazioa ohiko praktika ez balitz bezala.



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Post-egiatzat hartzen dira komunikabide handiek eta ohiko botere-egiturek aldeztutako jarreraren aurka doazen erabakiak. Hori zen, antza, "lehengo egia", elite politiko eta mediatikoaren egia. Terminoa ontzat ematea, hortaz, hedabideen objektibotasun erabatekoan sinestearen parekoa litzateke, orain arte informazioa propagandaren atzaparretatik at egon dela irenstea. Ja! Desinformazioa ohiko praktika ez balitz bezala

Hori irakurrita, baten batek pentsa dezake *mass media*-k boterea galdu duela esaten ari naizela, apaldu dela iritzi publikatuak iritzi publikoan duen eragina. Kontrakoa baieztatzen noa, ordea. Hedabideek eurek barreiatzen dituzten usteak dira post-egia izendatutako horren bazka. Integrazioa eta berdintasuna bezalako hitz handiak darabiltzate, baina eguneroko praxia horretatik oso urrun dago. Eguna joan eguna etorri azpimarratzen dute delitugileren baten jatorria edo etorkina dela. Eguna joan eguna etorri genero estereotipoz betetako albisteak kalera-tzen dituzte, emakumea gutxietsiz eta bigarren mailan jarriz. Eguna joan eguna etorri hauspotzen dute patriotismoa, beste gaitz askoren anestesiko gisara. Eta horrela zerrenda luzea osatu liteke.

Neo-faxismoak gizartean latente dau-den joera horiek hartu eta propagandaren ohiko egitura erretorikoz jantzi ditu. Jendearen egoera latzarekin bat egiten duen diagnostikoa egin ostean, antidoto gisa aurkeztzen dituzte pentsamendu oinarrikoen txertatutako aurre-juzkuak. Eta pertsona askok hor topatu du egoera iraultzeko esperantza. Hori da kezkatu beharko gintuzkeena. Post-egiarekin batera, beste eufemismo bat dago boladan, *alt-right* edo eskuin alternatiboa delakoa, faxismoaren mutazio hori zurrizko erabiltzen dena.

Bada, bien bitartean, egiak gordina izaten jarraituko du, eta bizi gaituen errealitatea azaltzeko post-egia bezalako hitzarrapoak aurkeztuko dizkigute, aldi berean, egiaren eraikuntzari buruzko hausnarketa eta pentsamendu kritikoa, filosofia, institutuetatik kentzen digutenean. Eta interes orokorreko aktualitate gaiak programatu beharrean *reality show*-k jartzen dizkiguten horiek, horietan esango digute zer den egia ostea, egia zer den fidatzearekin batera. Gero alferrikakoa izango da pedagogiarekin hastea. ■

Bizkaitar ardurak

Bistakoak egiten zaizkit lurraldeen artean gauzak egiteko, erabaki instituzionalak gauzatzeko nagusi, egon daitezkeen moduen arteko ezberdintasunak. Urrutiei joatea litzateke, batzuk eta besteak halakoak edo bestelakoak direla hortik ondorioztatzea. Amorragarri egiten zait gero eta barneratuago dauzkagun horrelako bereizketak egitea.

Batzuek bistakoak diruditen arren zaila zait lurralde guztietako moduen ezberdintasunak zerrendatzea. Elkarren artean ditugun ezberdintasunen multzoa sistematizatuko lukeenik egongo bada ere kaosetik ezerezera eramango gintuzkeen bufada bat besterik ez litzateke hori.

Errazagoa da elkarrekin partekatzen dugun eta berdintzen gaituen elementuen zerrenda batekin hastea, laburra bezala luzea. Hori litzateke herritar oso bilakarazten gaituen elementuetako bat, berdintasun hori litzateke komunitatea nazio bilakatzen laguntzen diguna. Hor dago euskara, mendeetako aglutinatzaile historikoa izan duguna eta azken hamarkadetan, gure historia-ko batasun politiko eta administratibo mailarik handienaren garaietan, funtsezko motorea eta arima, orain artean zatiezina dena.

Euskara batuak aitortu eta eman digu herritartasuna, bera gabe erreka



Ramon Etxezarreta

ITZULTZAILEA

@retxezarreta

Psikologo askoren esanetan, pertsonak sano hazteko euren erreferentziatzko zaintzaileekiko lotura enpatiko eta sendoa behar dute

jota leudeke egun prestigio harrigarria eskuratu duten gure hizkerak eta euskalkiak. Oroimen historiko gauzatu eta berreskura ezin bat besterik ez lirateke, inkulturaren lekukotasun urri eta negargarri baten adierazleak. Horregatik

urduri jartzen naute ez hanka, ez buru eta ez arau duten euskalkiak idazteko saioek. Hizkuntzalaritzan aspaldi asmatuak egonik horrelakoak idatzira transkribatzeko tresnak, ez dakit ignorantziatik abiatutako saioak diren ala ignorantziara eramaten gaituztenak.

Enpeinu guztiz kezagarria da instituzioetatik edo ardura publikodun, direla politikoak bezala beste edozein eitetakoak, pertsonengandik datorrenean. Bizkaiera izan nahi duen hizkera modu ugari eta hedatu horrek beldurtzen nau, ez baitakit jatortasun faltsu batez harago zer demonio adieraztera datorren. Zergatik? Zer arau ezkutugatik, ordezkari politiko bizkaitarrek, Lehendakaria eta Erkoreka jaunaren jardun ohoragarriak salbu, *dabe*-ka, *deutsu*-ka edo *dinoe*-ka aritu behar zaizkigun. Batzuek gainera, inoiz berea izan ez duten hizkera errekupe-ratzeko keinua eginaz.

Sailburuak esan du bizkaitar baten esku jarri duela oraindano beti gipuzkoarra izan den hizkuntza politikaren ardura. Onartuko nioke argudioa izendapena bizkaitarkeria linguistikoko horrekin kritiko izateko bada. Neure garaian alderdiko agente *bizkainoek* egin zezaketen txikizioaren beldur isildu egin banintz ere, etxean *esan*, *jan* edo *ekarri debe* esaten jarraitzeko asmoa galdu ez badugu ere. ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozka ezazu!

Bozkatzeko epea:
otsailaren 13tik martxoaren 10era
blogetan.eus

Antolatzailea: **AZKUE**
FUNDATZA

Laguntzailea: **ARGIA**

Euskararen posizioa



Mikel Irizar

HIZKUNTZA
BERDINTASUNeko
ZUZENDARIA,
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAN

Euskal soziolinguistikaren antologiarako geratu da Kike Amonarrizen kale inkesta euskararen tamainaz: gehienek oso txiki ikusten zutena, munduko hizkuntzen goiko tropelean dabil, zailtasun artean duin.

Beste horrenbeste esan liteke 2016ko Donostiako hizkuntza aniztasunaren foroak azaleratu duenaz: hizkuntza gutxituen artean euskara da hedatzen –hau da, hiztunak eta espazioak irabazten– ari den bakarretakoa.

Beldur handiegia izan diogu euskararen egoeraren alde baikorrak azpimarratzeari, horrekin hizkuntzaren aldeko afana galtzeko –edo, zenbait zatitza okerrago, inori dominaren bat oparitzeko– arriskua balego bezala.

Baina egia da; munduko hizkuntza gutxituen artean euskara erreferentzia bat da, batez ere EAEn izan duen biziberritzea dela eta. Posizio honek bi emozio eragin beharko lizkiguke: alde batetik, harrotasuna, lortutakoa ez bata inoren opari izan, gizarte ekimenaren eta erakundearen ahalmenaren ondorio baizik, lan on askoren fruitu ederra; bigarren emozioa, ardua behar genuke, euskararen herri osoari begira, baita mundu zabalari ere. Kooperazio linguistikoa izenez identifikatzen hasi gara beste hainbat hizkuntza gutxituekin izan dezakegun harremana:

gure eskarmentua haiei eskaini eta trukean haien hizkuntzarekiko pasioaz gu apur bat kutsatu.

Bada beste liga bat ere, asko interesatzen zaiguna: munduko hizkuntza txikiena. Hizkuntza gutxituez gain badira beste batzuk, estatus politikoko sendoagoa dutena, baina hiztun kopuru mugatua. Europan bertan hainbat dira: nederlandera edo daniera bezala, baltikoak, baltikoak edo nordikoak. Hizkuntza hauek hiztun komunitate txikia dute, eta igurtzian daude hizkuntza hegemonikoekin, nagusiki ingelesa eta alemana. Hizkuntza txikiekin eskumenetan dugu alde, haiek estatua baitute. Hala ere, haien hainbat estrategia eta eskarmentu balekoak izan dakizkiguke, gurera egokituta. Esaterako, nola jokatzeko ikus-entzunezkoen sektoreak Danimarkan, gazte guztiek ingelesa primeran jakin arren kontsumoan nagusiki danieraz egin dezaten? Zerbait kopiatu dezakegu?

Asko komeni zaigu begirada gure zilborretik altzatzea eta inguru zabalari ere begiratzea, euskararen gaineko analisisen kontrastea egiteko eta besteen eskarmentuak ere baliatzeko. Euskararen posizioa ez da txarrena aukerak aprobetxatzeko; bestalde, guk irabazitako hiztun edo esparru bakoitza garaipen bat da munduko hizkuntza aniztasunaren ikuspegitik. Animo! ■

San Balentin, printzesa eta sorgina



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Antza denez, euskal herrietan San Balentinek ez du lortzen errotze ona. Harrotasun osoz azaltzen diegu batzuek besteei kontsumo izaki huts bihurtu nahi gaituztenen trikimailu horietan gu ez garela erortzen eta ez dugula zertan kreditu txartela paseatzera atera gure maitasuna erakusteko. Egutero da San Balentin.

Azken hau badugu, ordea, erabat errotua, emakumeok, burmuinaren azken zirrikituraino eta, emozioak nik ez dakit esaten non eratzen diren, baina haraino ere bai. Amodioaren idealizazioak egutero bonbardatzen gaitu, gure printzesa egutero dugu sorbalda eserita belarrira matraka eman ta eman.

Printzesak uste du amodioa dela zorientasunerako bide bakarra (eta amatasuna!). Bikotekide ezak porrota auto-estimu suntsitzaile bihurtzen du eta bakardadea deitzen dio. Infernu beldurgarria. Familia bat zaindu nahi du eta hori lortu nahiz mantentzeko sakrifizioak behar direla dio.

Printzesak karrikatura dirudi eta ez da. Printzesa gure barneko patriarkatua da. Guztiz erreala eta boteretsua. Berak ekiditen du gizarte zapaldu honen iraultza, amodio erromantikoa-ren bidez.

Izan dadila otsailaren 14a, aurrerantzean, gure barne sorginak printzesari zartakoa ematen dion egun nazionala! ■

Gutun irekia portuetako zamaketariei, “pribilegiatu horiek”

Julian Jiménez

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

@_ju1_

Kide estimatua: Zure “pribilegioei” uko egin die-zaiezula eskatzeko eta “kasta” zarelara aurpegiatzeko idatzi behar nizuke gutun hau. Beno, horixe egingo nukeen nire kontzientzia eta nire printzipioak hedabide batzuek aginduta baletoz, zure kideen aurka zaunka ari diren beste askorenak bezala, nahiz eta ziurrenik orain astebete ez jakin portuko zamaketaria zertan jarduten zen edo zenbat kobratzen zuen. Zoritxarrez, baina, herri honetan, ezagutzen ez denari buruz hitz egitea ohikoa da, nahikoa da telebistako edozein tertulia ikustea hori baieztatzen.

Aurki kriminalizatuko duten gremioko beste pribilegiatu horietako bat naiz, irakaslea. Ongi oroitzen badut, larunbatean artikulua irakurtzean “liberalizatzearen” onurez –horrenbeste sufrimendu ezkututzen duen itxurazko hitz polit hori– eta zuen “lan pribilegioez”, meatzarien borroka edo aire kontrolatzaileen aurkako jazarpen kanpaina etorri zitzaizkidan burura. Beti doinu bera, ez du hutsik egiten: “Soldata, pribilegioak, kasta, liberalizatzeak ekonomiari ekartzen dizkion onurak, prebendak”. Berdin du zein den langileen kolektiboa, beti gauza bera egiten dute. Tristeena eta minik handiena egiten duena da, beti badela amua irensten duenik. Batzuek ezjakintasunagatik, beste batzuek langileen aurkako ideologia argi eta definitua dutelako.

Ez naiz soldataren eztabaidan sartu ere egingo, ez baitago merezi edo produzitzen duena baino gehiago kobratzen duen langilerik, are gehiago sistema kapitalista batean. Eta hainbat hedabidek zifrak puztu dituztela

argi uztea komeni den arren, bereziki *La Sextak* eta *Libertad Digitalek* –zerbaitengatik dira jabetzaz zuen hondoratzearekin urrezko egingo diren bankuenak–, uko egiten diot soldatez eztabaidatzeari. Gaiztotuta jaurtitzen baitute eztabaida hedabideek. Zergatik ez da hitz egiten milioiak irabazten dituzten milaka eta milaka enpresez, langileak soldata miserableak kobratzen dituzten bitartean? Zergatik ez dugu soldatarik baxuenez eztabaidatzen? Zergatik ez gara hasten soldatarik baxuenak igotzeaz hitz egiten? Batzuentzat erosoagoa baita inbidia eta elkartasun eza sustatzea. Niri igoko al didate ba soldata zuri %60 jaisten badizute, Gobernuak aurreikusia duen bezala? Irabaziak izango dituztela pensatzen dutelako ari ote dira zaunka batzuk? Edo agian, beren nagusiei egiten ausartzen ez direna zuei egiten ausartzen direlako ote da?

Beste bat kontratazioena da. Pittin bat informatuta erraz ikusten da zenbat egia erdi eta gezur oso irakurtzen diren, baretik sutan jarriz bat. Oker ez banago, zamaketarien sektorean, botere osoa enpresariak izan beharrean, langileek hitza eta botoa daukazu kontratazioetan. Lan istripu-tasa izugarri altua duen zuen lan baldintzen ondorioz, diktadura aroan eta diktadura ostean, iraganeko borroken ondorioz egindako konkista da. Modu honetan, ezgaitasun edo heriotza kasuetan, langilearen familiak bazekien heriotza edo ezgaitasun horrek ez zuela miseriara eramango. Benetan ari al da “ezkerreko” jendea kezaka, dena enpresarien esku utzi beharrean, langile batzuk hain ausartak izan eta patronalari ken-



Zamaketarien sektorea erreferentea da langileen eskubideen aldeko borrokan. Frantziako La Havre portuko langileen argazki hau, sektorearen ikono bilakatu da nazioartean.



du diotelako, enpresen kontratazioak demokratizatzea lortu dutelako?

Pribilegiatu, pribilegiatu, pribilegiatu, ez diozu entzuteari utziko. Batzuek prentsak dioena errepikatu besterik ez dute egiten. Gaixotu egiten naute! Pribilegiatua? Non dago lan egiteagatik soldata bat kobratzearen pribilegioa? Pribilegiatuak al dira zerbitzariak 700 euro kobratzeagatik dilista plater bat jaso beharrean lan egiteagatik? Pribilegiatua al da irakaslea, ogibide guztiak formatzen dituena, soldata bat kobratzeagatik? Zer espero dute ba? Zamaketaria pribilegiatua al da? Zamaketa lanetan 2016an 56 lan istripu izatea pribilegioa al da? Pribilegioa al da azken sei hilabeteetan bi portu zamaketari hiltzea Bartzelonan eta Valentzian? Barkuak husteru joateko uneoro prest egon behar izatea pribilegioa al da? Noiz baimendu genuen eskubideak pribilegio bilakatzea, hala izan gabe? Zergatik sartzen digute porrua? Nola da posible oraindik ere patronala, bankuak eta enpresa handietako jendea “ekintzaile” gisa saltzea, egiazko pribilegiatuz beteta badaude? Zergatik uzten diegu hizkera ere haiei maneiatzen?

Ezkutuko ERE bat eta prekarizazio basati bat daude jokoan. Beti bezala, enpresa handi eta bankuek, iraintzen eta kriminalizatzen zaituzteten hedabideak kontrolatzen dituzten horiek, irabazi handiak izango dituzte (“ekonomia espainiarra lagunduko du”, diote haiek). Argindarra pribatizatu zutenean bezala, nahikoa da begiratzea zenbatekoa eta zeinentzat izan den irabazia. Betikoen-tzat. Portuetako zamaketa sektore prekario bat gehiago bilakatu nahi dute, soldata zikin batzuekin, lan baldintza nazkagarriekin, banku eta enpresentzat ikaragarriko irabazi multimilionarioak bermatuz. Soldata %61 jaitea, zuei egin nahi dizuetena, modu bakarrean definitu daiteke: enpresa terrorismoa.

Horregatik, eta nahiz eta agian lerro hauek ez dizuten asko lagunduko, nahi nuke zuk jakitea ez zaudela bakarrik, ez zu ezta zure kideak ere. Goian adierazi dudana informatu ostean, kontrastatu ostean, baieztatu ostean, oso garbi daukat: babes osoa zuen lanpostuen aldeko borrokan hartzen duzuen erabaki orori. Hori egin behar genuke denok. Meatzariak iraganean bezala, egun oraindik mantentzen ditugun eskubideak ez dira tabernan zurrutean eta negarrez

lortzen, ezta interneten kezaka ere. Langileen borrokari esker lortu ziren beti, beti. Batzuek ahaztu dutela dirudi, klase ertainekoak sentitzen diren eta horren parte sekula izango ez diren horiek. Zuen bilerako irudiak ikusi eta amaierako zuen oihuak entzutean burura etorri zitzaidan lehen pentsamendua hau izan zen: Horrela bai, joder! Horrela bai! Hauek gutarrak dira!

Ezin dut grebara joan zurekin –elkartasun grebak demokrazian utzi zituzten legez kanpo, lehenago ez bezala–. Ezin dut fisikoki kolaboratu zuekin. Hori zuei eta zuen sindikatuari dagokizue. Baina jakin ezazue badela babesten zaituzten jendea, zuen borroka babesten duena eta horregatik ez zaituztena kriminalizatuko. Ez al dugu esan Gobernu eta patronala eraso larria egiten ari direla zuei soldata %61 jaitziz? Halako erasoaren aurrean, borrokara joko luke edozein kolektibok, bere burua defendatzeko, borroka egiteko eta “dena emateko” bere ogiaren eta bere kideen alde.

Hori gustatzen zait gehien zuengandik. Ez sinadura bilketarik, ez eserialdirik, ez inongo “mesede” eskaerarik Gobernuari, ezta kikildu ere kapitalaren bozeramaile den prentsaren irainekin. Tinkotasuna, seriotasuna, diziplina eta langile klase antolatua. Hala behar du. Oso bestelakoak lirakeke gauzak langile guztiok zuen eredia hartuko bagenu, ez bagina aguantatzen ari garena aguantatzen ari. Oso bestelakoak lirakeke gauzak ulertuko bagenu ez dela delitua, behar morala baizik, zapaldu nahi gaituzten erasoei erantzutea.

Izan adorea zuen borrokan eta pausorik ez atzera! Errespetatzen zaituzten eta zuen borroka baloratzen duen langile komunista baten partetik, klase kontzientziagatik, elkartasunagatik eta defendatzen ditudan ideiekiko koherentziagatik.

Gora zamaketarien borroka! Gora langile klasearen borroka! Behera patronala eta Gobernu, behera soldatapeko ipurgarbitzaileak! Pausorik ez atzera! ■

► Zamaketariak greba egingo zutela iragarri zuten egunean <http://jsmutxamel.blogspot.com.es/> blogean idatzitako artikulua itzulpena da hau. Otsailaren 15ean Espainiako Gobernuak atzeratu egin du erreforma eta langileek greba bertan behera utzi dute.



CORDON PRESS

Greba Bizkaiko zahar-etxeetan **ESKU NAHIKORIK EZ**



Dabi Piedra

Prekarietateak eta enpresen diru-goseak “kinka larrian” utzi ditu zahar-etxeetako langileak Bizkaian, ELA sindikatuak salatu duenez. Adinekoei dagokien arreta emateko ez da nahikoa gaur egungo langile kopurua eta, eginbehar guztietara iritsi ezinik, ito beharrean ari dira beharginak egunero. “Ez dugu esku nahikorik horrenbeste lan egiteko”, diote. Negoziazioetan oraingoz ezin izan dira ados jarri sektoreko patronalak (GESCA, ELBE eta LARES) eta sindikatuak. Horregatik, kalera irtetea erabaki dute: otsail guztian grebara deitu

Otsail osoan grebara deitu ditu ELAk Bizkaiko erresidentzia pribatuetako beharginak. Lantaldeak handitzeko eta baldintzak hobetzeko eskatzen dute, erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko. Diru publikoa ere tartean denez gero, esku hartzeko deia egin diote langileek Bizkaiko Foru Aldundiari.

du ELAk eta protesta ekintza ugari antolatzen ari dira.

Gizartea egoeraz ohartaraztea da protesten helburuetako bat. “Bizkaiko Foru Aldundiak eta enpresek ezkutuan gorde nahi dute hau”, salatu du Ander Akarregi ELAko kideak. Langileen eta sindikatua-ren arteko lotura egiteaz arduratzen da bera. “Aldundiak zahar-etxeak pribatizatu gura ditu diru publikoz; eta patronalak lan baldintzak eta erabiltzaileen arreta prekarizatu nahi ditu, mozkinak ugaltzeko”, azaldu digu Akarregik.

Grebara deitu duen sindikatu bakarra ELA da. Hala eta guzti, beste sindikatu batzuk ere langileen aldarrikapenen alde agertu dira. Esate baterako, LABek egotzen kudeaketa eredia aldatzeko eskatu du behin eta berriro, kalitatezko zerbitzu publiko baten alde egiteko. Zerbitzu publiko bat eskainiz inor ezin dela aberastu dio. ELA, berriz, negoziazio mahaiari ordezkaritza duten sindikatu guztiekin batzartu da. Diagnostikoan denek bat egin arren, ELAk ez beste guztiek greba egiteko aukera baztertu dute.



DABI PIEDRA

Artatu beharreko pertsonako zenbat langile?

Langileen eta beharrianen arteko ratioa aldatzea da eskari nagusia, horrek lan kargak arindu eta duintasuna ekarriko bailieke behargin nahiz erabiltzaileei. 1998tik ez da ratioa gaurkotu. Urte hartan, dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, baina zaharkituta dagoela diote langile eta erabiltzaileek. Zahar-etxeak ez ezik, menpekotasunen inguruko sektore guztia arautzen du. Dekretua eragile guztiak kontuan hartuta gaurkutzeko eskatu dute sindikatuek.

Premiazkoena zuzeneko arreta ez-espezializatua ematen dutenen ratioa igotzea dela dio ELAk. Dementziadunen kasuan, gutxienez langile bat nahi dute bost egoiliarreko. Euren kabuz moldatzen diren erabiltzaileen kasuan, bat zazpirentzat. Akarregiren esanetan, "ratioak kategoria

guztietan eguneratu behar dira, baina lan-karga fisiko eta psikologiko gogorrenak dira premiazkoenak, egoiliarren menpekotasun handiak direla eta". Alegia, gerokultore eta laguntzaileen kategoria.

"Gaur egungo dekretua indarrean sartu zenean, 1998an, ratioak orekatuta zeuden, baina egoera zeharo aldatu da harrezkero", ohartarazi du Erandioko egoitza batean lanean ari den Zoa Sáenz de Santamariak. "Orain, erabiltzaile askok 2. eta 3. graduko menpekotasuna dute eta arreta handiagoa behar dute". Langile gutxiegi direnez, "iritsi ezinda" ibiltzen direla dio Sáenz de Santamariak, "presaka artatu behar dugu pertsona bakoitza, zerbitzua txarra da... Azkenean erabiltzaileengan eragiten du".

Egoitza publikoen pare

Ratioen auzia konpontzearekin lotuta, erresidentzietako langileentzat lan bal-

Bilbon manifestazioa eginez abiatu zuten hilabeteko greba joan den otsailaren 1ean. Mobilizazioak hasi zituztenetik 80 egun baino gehiago egin dituzte greban Bizkaiko zahar egoitzetako langileek.

dintza duinak adostea ezinbestekotzat jo du ELAk, gaur egun "prekarietatean" daude eta. Soldatak igotzea eta 35 orduko lan astea ezartzea eskatu du, eta Espainiako Gobernuaren Lan Erreforma erresidentzietatik "kanpora bidaltzea". Aldi baterako lanaldiek sortzen duten ezegonkortasuna ezabatzea, gaixoaldiak behar den bezala arautzea eta kontziliazioaren aldeko neurriak hartzea ere aipatzen ditu ELAk.

Egoitza publikoetan dabilzanen eta azpikontratatu lan baldintzen arteko aldeak ezabatzea da epe luzerako helburua. ELAren datuen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen dituen



Langileen %92 emakumeak dira Bizkaiko zahar-etxeetan, ELAK emandako datuen arabera. Langile gehienak gizonak balira gatazka aspaldi konponduta legokeela uste du sindikatuek.

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

egoitzetan ratioak handiagoak dira kategoria guztietan, lan ordu gutxiago dituzte eta soldatak %40 eta %60 artean altuagoak dira. Langile horiek ez daude Bizkaiko Egoitza Pribatuen Hitzarmenean eta, hortaz, ez daude grebara deituta. Prekarietatearen mamua urrutiago ikusten da egoitza publikoetan, baina sektorea guztiz pribatizatzeke interesak salatu dituzte sindikatuek.

80 egun baino gehiago greban

Auzi korapilotsua da Bizkaiko zahar-etxeetakoa. Oraingo greba hau ez da, inondik ere, azkenaldian antolatu duten aurrenekoa. Duela ia urtebete, 2016ko martxoan egin zuten lehenengo lanuztea eta dagoeneko 80 egun baino gehiago pasa dituzte greban. Denborak aurrera egin ahala, protestak gogortzea da asmoa. Hartara, orain arteko luzeena da

» Aldundiak zuzenean kudeatzen dituen egoitzetan lan ordu gutxiago dute eta soldatak %40 eta %60 artean altuagoak dira

» “Fisikoki eta psikologoki ahituta” daudela kexu dira langileak

otsaileko greba, hilabete iraungo baitu. Era berean, manifestazio eta agerraldi andana egin dituzte, ekitaldi bereziak aprobetxatuta.

“Gure borrokaren aldarria herririk herri eraman dugu, esan daiteke Bizkaian ez dela egon herri ekitaldirik gu izan ez garenik”, azaldu digu Ander Akarregik. Besteak beste, San Tomas azokan, futbol partidetan, Durangoko Azokan eta Gernikako Urriko Azken Astelehenean izan dira.

Gainera, Bizkaiko erresidentzietakoko greba ez da kasu isolatua. “Azkenaldian asko borrokatzen ari gara Euskal Herrian, egoitzetako lan baldintzak hobetzeko”, dio Akarregik. Araba, Gipuzkoa eta Nafarroan egoera hobean daude, baina ekinaren ekinaz lortutako hobekuntzak izan dira. Akarregik gogora ekarri du Gasteizko Ariznabarrako emakumeen greba, bi urte, bederatzi hil eta hamazazpi eguneko: “Erresidentzietakoko borroken aitzindari izan zen”.

Deia instituzioei

Bizkaian ere, gatazka luzearen tankera hartzen hasi da. “80 greba egun eta gero, oraindik ez dugu lan baldintza duinak jasotzen dituen proposamenik patronalaren partetik”, salatu du Akarregik. Negoziazioak motel doaz eta ELAK Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dio gehiago inplikatzeko, zahar-etxeetako gatazka erakunde publikoen ardura ere badelako. “Egoitza pribatuetako plazen %70 Aldundiak finantzatzen du, diru publiko hori ondo erabiltzen den begiratu behar du”. Langileek baldintza aproposetan lan egitea eta erabiltzaileek kalitatezko zerbitzua jaso-

SENIDEEN HASERREA



DABI PIEDRA

Enpresak alde batetik, langileak bestetik, erdi-erdian harrapatu ditu gatazka honek Bizkaiko zahar-etxeetako 10.000 erabiltzaileak. Haien ahotsa ere entzun dadin, erabiltzaileen senideak Babestu izeneko elkartearen batu dira, kalitatezko zerbitzu baten alde. “Langile nahikorik ez zegoela sumatzen orain dela urte batzuk hasi ginen”, dio Juani Céspedes elkartearen presidenteari, “baina orain izugarria da”.

Iraide Urriz Babestuko beste kide batek beren asmoen berri eman digu. Ratioa gutxienez 0,36ra igo dadila eskatu dute, alegia, langile bat hiru oheko, baina ohartarazi du zenbaki horrekin “tranparik” ez dutela nahi. “Erabiltzaileei zuzeneko arreta ematen dieten langileak kontatu ditzatela ratioaren kalkuluan, ez enpresako edozein langile”. Babestuk salatu duenez, psikologoak, idazkariak eta abar sartzen dituzte ratioan, “baina pertsona batek komunera joan nahi badu, zentroko psikologoak ez du lan hori egingo”.

Egoera gertutik ezagutzen du Urrizek, ama erresidentzia batean baitu, eta langile nahikorik ez dagoela garbi ikusten duela dio: “Gertatzen da, adibidez, jateko orduan batek komunera joan nahi izatea eta ezin izatea, langilerik ez dagoelako”. Menpekotasun handiak dituzten pertsonak direla gogoan izan behar da.

“Enpresak dirua ateratzeko daude”, segitu du Iraide Urrizek, “kalkulu matematikoak egiten dituzte, lana zenbat denboran eta zenbat langilerekin egin daitekeen jakiteko, baina erabiltzaileak ez dira makinak, pertsonak dira!”. Bere ama behin goizeko 6:30ean esnatu omen zuten, bestela langileari ez ziolako astirik ematen zegozkion pertsona guztiei garaiz jaikitzen laguntzeko.

Kalitate eskaseko zerbitzu hori enpresen errua dela uste du Babestuk eta, beraz, beharginen eskariekin bat egin du. “Zorionez, langileak oso profesionalak dira eta zerbitzu duina ematen ahalagintzen dira, sarri dagozkien baino ordu gehiago lan eginda, kobratu gabe noski”, dio Urrizek. Enpresak beharginen borondate onaz “aprobetxatzen” direla salatu du.

Egoitzetako plazaren erdia inguru diru publikoaz finantzatuta daude eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrerarekin haserre daude, “ez diote gaiari heldu nahi”, dio Juani Céspedesek. Langileen mobilizazioekin bat egiteaz gain, bere kabuz ere ari da Babestu. Bideo bat prestatzen ari da Arartekoari bidaltzeko eta Eusko Legebiltzarrean txosten bat aurkeztu du, egoitza pribatuetan eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea agerian uzteko asmoz. Gabezia handiak daudela salatzen dute: botika nahikorik ez, azpiegitura zaharkitua edo desegokiak, kalitate txarreko materiala...

Herri ekimen legegile baten bidez, 1998ko dekretua eguneratzeko eskatuko dute senideek. Bestetik, enpresei ordaindutako diruaren zati bat bueltatzeko eskatuko diete. Babestuk salatu duenez, greba egunetako lansaria kendu diete langileei, baina erabiltzaileei ez diete itzuli, kalitateak behera egin arren. Alegia, greba dela-eta eman gabeko zerbitzu batekin dirua irabazi dute enpresak. “Konpentsazioa eskatuko dugu, moralki eta ekonomikoki hala dagokigulako”, dio Juani Céspedesek. Enpresen eta sindikatuen negoziazioekin ezkor samar dago baina itxaropena badu, “asko dagoelako konpontzeko”. Zahar-etxeetako erabiltzaileek duintasuna merezi dute, haren esanetan.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



ECUADOR ETXEA

Elena Unzueta Bizkaiko Foru Aldundiko bozeramaileak (ezkerrean) esan du negozioazio serio bati ekin behar zaiola eta zahar-etxeetako ratioei buruzko proposamena jarri duela mahai gainean. ELAk, berriz, enpresa pribatuen nahietara makurtzea eta langileak presionatzea leporatu dio Aldundiari.

tzea, Aldundiak ondo zaindu beharreko kontuak dira, Akarregiren ustez.

Aldundiak, ordea, patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioa jo du irtenbidetzat. “ELAk arreta desbideratu nahi du, Foru Aldundia guztiaren errudun bihurtuz, baina egin behar dena da negoziazio serio bati ekin”, adierazi du Elena Unzueta bozeramaileak. Gaineratu duenez, akordiorako traba nagusia ratioak dira eta Foru Aldundiak horren inguruko proposamen bat jarri zuen mahai gainean. Enpresa pribatuen nahietara makurtzea leporatu dio ELAk Aldundiari, baita langileei “presioa” egitea ere, halamoduzko akordio bat onar dezaten.

Eusko Legebiltzarrerara ere heldu dira grebalariei aldarrikapenak. EH Bilduren ekimenez, otsailaren 9ko osoko bilkuran proposamena adostu zuten legebiltzarkideek, aho batez. Jaurlaritzari dei egiten zaio zahar-etxeetako gatazkan esku hartu eta 1998ko dekretua egunera dezan.

Beharrianetara egokitutako ratioak ez ezik, egoitzetako baliabide materialak arautuko lituzke dekretu berriak. Hala, langileen baldintzak hobetzeaz gain, erabiltzaileen eskariak beteko lirake, egoitzetan eskaintzen den zerbitzuaren inguruko kexa asko eraman baitzituzten Legebiltzarreko saiora. EH Bilduko legebiltzarkide Jasone Agirrerren esanetan, “lehenengo urratsa da zentro horietako langileen lan baldintzak eta, era berean, pertsona nagusiei eskaintzen zaien arreta duintzeko”.

Langileak ahituta

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak negoziazioaren bideari eusteko deia egin zuen, otsaileko grebaren bezperetan.

» Langileen eta beharrianen arteko ratioa aldatzea da grebalariei eskari nagusia, horrek lan kargak arindu eta behargin zein erabiltzaileei duintasuna ekarriko bailieku

Baikor zegoela azaldu eta akordioa hurbil egon daitekeela iradoki zuen Rementeriak. Langileak nabarmen ezkorrago daude eta, gainera, berriro giroa gaiztotzen hasi dela dirudi. “Aldundiak eta Jaurlaritzak ez dute gure egoera benetan ezagutzen”, dio Zoa Sáenz de Santamaría langileak. “Helburu batzuk ezartzen dira, adibidez hamar edo hamabi pertsonari ohetik jaikitzen laguntzea, eta estu eta larri ibiltzen gara hori betetzeko, sarritan gure zaintzapean daudenekin hitz egiteko astirik ere ez dugu izaten”.

“Fisikoki eta psikologikoki” ahituta duedela kontatu digu Sáenz de Santamaría. “Lanera sartzean pentsatzen dut, ‘mesez, gaur ez dadila ezustekorik gertatu, bestela ez naiz dena egitera helduko’, etsipenak jota gaude”. Egoitza guztietan hala dabilzala diote beharginek.

Emakume borrokariak

Langileen %92 emakumezkoak dira Bizkaiko zahar-etxeetan, ELAren datuen arabera. Gizarte eragileek maiz salatu dute

sektore feminizatuek dituzten baldintza prekarioak, gizezkoak nagusi diren lan esparruekin alderatuta. “Emakumezko asko dauden sektoreetan nagusi dira aldi baterako kontratuak, edozein unetan lanerako prest egotea, soldata apalak eta ezkutuko ekonomia”, azaldu du Ander Akarregik.

Andraskoei burujabetasuna eta kontziliaziorako aukera izatea eragozten die egoera horrek. Txiki Muñoz ELAko idazkari nagusiak argi eta garbi hitz egin du: langile gehienak gizonak izan balira gatazka hau aspaldi konponduta legoke.

“Berdintasunarena diskurtso hutsalada”, gaineratu du Ander Akarregik. Gaur egungo krisi garaian, emakumeak lan merkatutik egozteko estrategia bat ikusten du, etxeetara itzul daitezen, menpeko subjektu gisa. “Zorionez, emakume langileen kolektiboa, biktima pasibo izan beharrean, antolatuta dago”, dio Akarregik.

Protestan jarraitzeko prest

Otsaila aurrera doa eta, egoerak hobera egin ezean, protesta gehiago etorriko direla agindu du ELAk. “Beste talde batzuen atxikimendua bilatuko dugu: pentsiodunena, feministena...”, azaldu du Ander Akarregik. “Lan duina eta gizarte zerbitzu hobeak nahi ditugu eta helburu horiekin bat datozen guztiak arituko gara elkarlanean”. Erakunde publikoek eta patronalak entzungor eginez gero, “gogorrako” jokatu dutela dio, “eredu zaharkitu eta prekario” honek egoera larrian uzten dituelako langileak eta erabiltzaileak. “Ez dago aitzakiarik mobilizazioetan ez parte hartzeko, gatazka honek baldintza guztiak betetzen ditu: generoa, denon diruarekin azpikontratutako zerbitzu publikoa izatea, eta prekarietatea”. ■



HAUTATZEN DAKITENENTZAT

ARGIA komunitateko kide bazara
eta eskatua baduzu, etxean
jasoko duzu.


Gainerakoentzat,

9,95€

Eskura ezazu!

Zenbatek ulertzen du euskara?

‘Egia eredia’k dakarren iraultzak badu mapa berria



Donostiako Egiatik Agurainera, Amikuzen barna, paradigma berria ari da zabaltzen: ni euskaraz bizi naiz, zuk nahi duzun moduan erantzun eta kito. Elkarriaketa elebidunak mantentzetik hasi da iraultza berria. Baina horretarako euskaldunoi hizkuntzari eustea eragozten diguten aurreiritziak gainditu behar ditugu. Mapa egokiari begiratu, alegia.



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Niretzako –kronika hau lehen pertsonan joango da, aitormena ere bai baita– deskubrimendu bat izan zen datua: bizi naizen Hernanin herritarren %80k ulertzen duela euskara. Bestela esanik, gaztelania guk nahi baino askoz gehiago entzuten den Hernani industrial hiritartuan %20 baino ez direla euskara ulertzen ez dutenak.

Gure herriko “Eutsi Euskarari indar proba”, laugarren edizioa duen 2016ko Euskara Ari Du kanpaina, Egiak antolatutako “Euskaraz Bizi Nahi Dut” operazioaren uberan etorri da, Lasarte-Oriakoa, Astigarragakoa, Aguraingoa edo Arrigorriagakoa bezala, ARGIAko orrietan Onintza Iruretak azaldua duenez.

Hernaniarrei banatutako esku orrietan proposatzen zitzairen: “Ahal duzun guztietan hitz egin euskaraz. Bizi zaitezke euskaraz? Ez pasa gaztelaniara. Uleritzen baduzu, ez eskatu [nik] gaztelaniaz

egiteko. [Zuk] ireki belarriak eta saiatu ulertzen”. Kanpainaren hasieran jende pila bat entrenatu gara sekula praktikatutako gabeko kirol berrirako eta hainbat esperientzia eta bizipen ezberdin bezain kitzikagarriak bizi izan ditugu.



Nik neuk esango nuke euskaraz hitz egin ez baina ulertzen dutenekin elkarriaketa elebidunak mantentzea ari dela gertatzen iraultza. Ziurrenik paparrean “Euskara Ari Du” txapatxoa eramaten segitzea erabaki duten askok berdin sentitu duela esango nuke: “Zuk lasai segi zurean, ez dizut eskatzen aldatzea, nik neuk aldatzea erabaki dut”.

Prentsa-saltzailearekin, 60 urterekin gaztelaniaz trakets arren euskaraz hitz egiten ez duen kaleko euskaldun atzenuarekin, kafea hartzen duzun ostatua gaztelaniaz betetzen duten arren ia denek primeran ulertzen duten funtzionario, komertzianta eta jubilatue-

» “Urrunegi joatea ote da esatea Egiatarrok eragina eduki dezakegula alde guztietatik erasotzen duten euskararen oreka pittin bat berreskuratzen, hiztunetan asko ahuldu den nukleo gogorra sendotuz?”

kin... norekin ezingo duzu euskaraz hitz egin baldin eta zure herrian %20 besterik ez bada ulertzen ez duena?

Aguraingo “Nik 75” kanpainak astindu gaitu orduan, “baina hauek zeuzkatek barrenak... Agurainen 75 ordu eus-



Ezagutza maila bakoitzari eman diogu 1979an Euskaltzaindiak plazaratutako *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian* liburuaren azken orrietako mapen kolore bera, gero begirada errazeko alderaketak egin ahal izateko: gorriz %80-100, hori-laranja %60-80, urdinez %40-%60, berde ilunez %20-%40 eta berde argiz %0-20.

Niri begiek esaten didate, laburrean, Gipuzkoan ia denetan ulertzen dutela %80 baino gehiagok, ez da ez herri eta ez hiri bakar bat (Eibar, Irun, Donostia, Errenteria...) %60 baino gutxiagok ulertzen duenik. Bizkaia gehiena ere gorri edo hori, eta nire harridurarako, Bilbo eta Ezkerralde osoa ere urdin, %40tik gorak ulertzen dute. Txundituta Arabak utzi nau: ia osorik urdin (%40-60), Errioxako herri batzuk barne!

Nafarroa Garaiak azken urteotan Arabarekiko hartu duen atzerapena bistakoa gertatu arren, harrigarri gertatu zait zenbat herritan (Iruñea eta ingurukoak, Lizarra eta Tafallaz gain) gainditzen den %20ko marra. Iparraldean, Zuberoa eta Nafarroa Behereak osotasunean harturik %60ko marra gainditzen dute oraindik, eta ez dakigun arren nola dabilzan barneko hiri erdaldunenak (Maule, Donapaleu...) ez dirudi esajeratua horietan ere %40 gaindituko dutela pentsatzea. Lapurdikoa... beste upeleko ardo da: Itsasu edo Sara bezalako herriak eta Angelu-Miarritze-Baiona ezin dira parekatu, baina media %20-40 artean ibiltzeak euskaraz bizi nahi duenari ematen dizkio pistak.

Seguru mapa honi aitzakiarik jarriko zaiola. Esaterako, zenbat ulertzen du "ulertzeko gai" dela aitortzen duen herritarrik? Baina, oro har, "Egia erduko herritarren Euskal Herria" karta harturik (Interneten ipini dugun bertsioan xehetasun handiagoz ikus daitezke herriak) sentitu dut anitzez lasaitasun handiagoa euskaraz hitz egiteko

AZTIKER
Euskaraz hitz egiteko gai direnak gehi ulertzen dutenak batuta, Euskal Herriko udalerriek itxura hau daukate.

karaz bizi?" Eta bai, zeren eta Agurainen euskara ulertzen omen du... %55ak! Hernanin ez banuen espero %20 bezain gutxi izatea euskara ulertzen ez dutenak, Agurainen ez zitzaidan burutik pasako %55ak ulertzea, Jainkoak daki zein sorpresa aurkituko nukeen Barakaldon... Zalantzarik gabe, Aginagan kale-base-rritarra jaio nintzen honi maizter-komplexuak baldintzatu dit orain arte jokabidea, baina Euskal Herritik okerreko mapekin bidaiatzeak ere bai.

Aztiker kooperatibako soziologo bati eskatu diot laguntza, nire herritik bidaiatzeko mapa berriak behar ditudalako, eta hasteko hau: ehunekotan,


gure herrietan zenbat jende dira euskara ulertzeko gauza? Horrela prestatuak dira kronika honekin doazen kartak.

Euskarari kolorea aldatu zaio

27. orrialdeko mapa bilakatu da niretzako tresna nagusia. Biltzen ditu ezagutzaz Soziolinguistika Klusterraren EDB Euskararen Data Baseak dauzkan daturik berrienak: euskaraz hitz egiteko gai ziren herritarrik gehi ulertzen zutenak 2011n EAEn, 2001ean Nafarroan (herri handiengatik 2011n eguneratuak) eta 2011n Iparraldean lurraldeka, hemen ez baita ez udaletako eta ez eskualdekako informaziozirik.


1996an euskaraz hitz egiteko gai ziren herritarrak, euskaldun elebidunak.

AZTIKER



2011n 35 urtetik beherako gazteen artean euskara ulertzen zutenak.

AZTIKER



edonori edonon, jakinda zenbat probabilitate dauzkadan “no te endiendo nada” entzuteko leku bakoitzean.

Soziolinguistikaz dakitenek aspalditik dakizkiten datuak izan arren, ni oraindik nire buruari galdezka nabil nola ez naizen egoera honetaz jabetu lehenago. Esango nuke errealitatearen irudi okerra eduki dudala nire bizitzan zehar. “Egia ereduko herritarren Euskal Herriak” harritu nauela oso urrun dagoelako nire buruan neukan mapatik. Hau posible baldin bada, posible baldin bazen atzo bertan ere... zein maparekin ibili naiz, ordea, orain arte? Euskal Herriaren zein okerreko mapak baldintzatu du euskaltzale kontsekuente moduan bizitzen ahalegindu naitzen honek erdara hainbeste erabiltzea?

Soziologoarekin solasean, beste mapak probatuz, iruditu zait nire buruan euskara ulertzen duen Euskal Herriaren kartak irudikatzen zuela gutxi gorabehera duela 15 urte 1996an euskara hitz egiteko gai zirena.

Ikusi 28. orrialdeko lehen grafikoa... “Horrela bai”, horrela bizi izan naiz ni azken urteotan, oharkabean beti kalkulatu gutxi gorabehera leku bakoitzean (Lekeitio, Barakaldon, Olexan, Agoitzen...) zenbat egon zitezkeen nire komunitatekoak, txikitatik euskara hitz egin dutenak gehi eskoletan ikasita hitz egiten dutenak gehi gau eskoletatik ateratako euskaldun-

berri militanteak... Horrela nola ausartu, ez dut esango Bilbon, edo Irunen... nola ausartu Donostian edo Agurainen?

Gu zahartu eta euskara gaztetu

Baina aurkeztu didate Egiatar bizitzen ahalegintzeko beste mapa argigarriago eta are itxaropentsugo bat, orrialde honetako 2. grafikoa doana: 35 urtetik beherako gazteen artean euskara ulertzen dutenen karta.

Begiratu EAEk zer kolore hartzen dituen. Baskongadak ia erabat gorri! 2. grafikoa ikusirik, nola galdetu edo erantzungo diot gaztelaniaz Bizkaia, Araba edo Gipuzkoako gazte bati? Zuberoa eta Nafarroa Beherea, gainbehera doazen arren, oraindik urdin, Lapurdi bera eta Nafarroako herri asko berde ilun (%20-40)...

Euskara 2017an zenbatek ulertzen duten laster jakingo da, estatistika berriak martxoan plazaratzean ikusiko da urteotako aurrerapena. Oraingo 2001 eta 2011ko datuekin Euskal Herriak daukan benetako itxura hori ikusita... zer gertatuko da Egiako aitzindarien gibeletik zientoka batzuk eta gero milaka euskaldun ari baldin bagara euskarari eusten gure egunerokoa?

Gaztelaniadun monolingueei kontrako pisua egin ziezaieketen euskaldun elebarrak aspaldi galdurik, gaztelaniaz baino askoz errazago euskaraz mintzo ziren

gure gurasoak hiltzen, hedabide espainol eta espainolduen uholdean gero eta ugariagoak dira gaztelaniaz aiseago ari direnak eta haien umeetako asko D eredu onenetan heziak izanagatik berehala pasatzen dira gaztelaniara eguneroko bizitzan.

Urrunegi joatea ote da esatea Egiatarrok eragina eduki dezakegula alde guztietatik erasotzen duten euskararen oreka pittin bat berreskuratzen, hiztunetan asko ahuldu den nukleo gogorra sendotuz? Edota hori dela bide ia bakarra gaztelaniaz bizitzera kondenatu nahi gaituzten kolore politiko guztietako gure lagun ustez euskaltzaleen jarduera aldarazteko?

Egia aitortzeko, euskararen etorkizunagatik baino gehiago nire interesez ari naiz Egiatar bizi nahian. Ohartu naiz nire jokabidea ez aldatzekotan hilko naizela zaintzaile erdaldunarekiko errespetuz azken urteak gaztelaniaz ematen dituzten gure zaharren moduan. Eta euskaldun oso bizi nahi nituzke nire azken urteak. Amikuzen eta Agurainen erakutsi didate lor dezakedala. ■

Egia aitortzeko, euskararen etorkizunagatik baino gehiago nire interesez ari naiz Egiatar bizi nahian. Ohartu naiz nire jokabidea ez aldatzekotan hilko naizela zaintzaile erdaldunarekiko errespetuz azken urteak gaztelaniaz ematen dituzten gure zaharren moduan. Eta euskaldun oso bizi nahi nituzke nire azken urteak. Amikuzen eta Agurainen erakutsi didate lor dezakedala. ■

Artikulu hau ingelesera itzuli dugu. Euskal Herriko berriak nazioartean Euskal Herriatik zabal ditzaun: argia.eus/english

OSASUNAREN AUTOGESTIOA

MEDIKUARENGANA JOATEN EZ GARENEAN

Nahia, Oihu eta Maray 17, 15 eta 12 urteko nerabeak dira. Arizkuren herrian (Nafarroa) bizi dira eta ez dira sekula medikuarengana joan. Gutxiago gaixotzen direlako ala gorputzaren sintomak ulertu eta konponbideak bilatzen dituztelako?



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Biak ala biak dira erantzun egokiak. Hala baieztatu digu hiru nerabeen amak, Xandra Ruiz Santamaria arizkurendarrak. “Harreman osasuntsua, elikadura garbia, atsedena eta bizitza aktiboa izatea ezinbestekoak dira gorputzen oreka lortzeko”, dio. Ezaugarri horietako baten hutsunea nabaritzuz gero gorputzak komunikatu egingo digula kontatu digu, hala nola, gaixotu egingo garela: “Desoreka horretan aurkitzen garenean, gaintzeko hainbat aukera bilatuko ditugu naturan”.

Arizkuren abandonatua izan zen 1940ko hamarkadan, eta 50 urte geroago, 1995ean, “zaratak eta presak” alboratu nahi zituen kolektibo batek berreskuratu eta berreraiki egin zuen. Gaur 18 pertsonako “familia bat” bizi da mendi artean dagoen herritxo honetan. Osasunaren autogestioa bultzatzen dute. Gure arbasoen jakinduria eta bizimodua azpimarratu eta herritarren sinesmen eta bizitzetan aplikatzen dituzte. “Naturaren parte garen honetan, harenganako lotura berreskuratu behar dugu. Konpromisoa dugu harekin eta gure garapen pertsonalarekin. Pazientzia behar



Xandra Ruiz Santamaria, kosmetika eta osasun produktuak eskaintzen dituen “Aritzkuren tienduka” saltokian. Herriari eta herritarrei buruzko informazioa biltzen duen “Aritzkuren Bizirik” blogetik hartu dugu argazkia.

da, interesa, kuriositatea, propoleoa, baltsamoak, jarabea...”, dio Ruizek.

Ikasten ari dira eta erakusten. Sendabelarrak aztertzen eta konponbide naturalak detektatzen, “osasuna eta gorputzak ulertzen”. Izan ere, norberarengan mediku bat dagoela ikusarazi nahi digute, eta etengabe aipatzen dute gure arbasoak zein gertu zeuden baieztapen horretatik. Hori guztia zabaltzeko asmoz, kosmetika eta osasun produktuak egin eta saltzen dituzte azoketan, “Aritzkuren tienduka” izenpean: “Hau guztia autogestioaren bidez ateratzen dugu aurrera, ekonomia komuna oinarri hartuta”. Urtean zehar ikastaro desberdinak eskaintzen dituzte herrian bertan.

“Era berean garrantzitsua eta beharrezkoa da denontzako osasun zerbitzua egotea. Kirurgia, odontologia, fisioterapia...”, dio Ruizek. “Baita aromaterapia, musikoterapia, homeopatia, bach loreak...”, gaineratu du irribarrez. Baina honi guztiari erabilera egokia ematea gakoa dela pentsatzen du, hezkuntza eta jendarte ereduarekin lotura estua duelakoan. Medikamentuekin, adibidez, zalantza egin du arizkurendarrak: “Sen-

datzearen prozesua bera kaltetzen dute batzuetan; sintomaren gainean eragiten baita eta ez arazoaren sustraian, ez zegoen lekuetan beste arazo bat sortuz”.

Familia handi honek apenas erabiltzen duen sendagairik; gaixotasunak hamar egun baino gehiago iraun eta propoleoak eta landareek eraginik egin ez dutenean soilik. Katarroa, infekzioak, sukarra edo gripeak kaltetutakoan, esaterako, lagungarri naturalak hartzen dituzte: “Sendatze prozesua zailagoa bada ere, bigarren mailako efekturik ez dugu izango”. Intsusa baliatzen dute sukarra edo sinusitisa tratatzeko, ezgul-belarra bronkitisarentzat, iruntzi-belarra buruko min edota eztlarentzat, plantina marranta edota asmarentzat, eukalip-tua katarroarentzat, hurritza sukar eta eztlarentzat, eta abar.

Ruiz Santamariak azaldu digunez, sendagilea erabat harritu zen Nahia, Oihu eta Maray lehen aldiz medikuarengana joan zirenean errebisioa egitera, ordura arte sekula artatu gabeak zituelako. “Izugarria da gorputzak sendatzeko duen gaitasuna. Bizitzari eskertzen diot gehiago behar ez izatea”, dio haien amak. ■

ANTSIOLITIKOEN ABUSUA

Lasaitzeko pilulak, kezkatzeko arrazoiak

Aste batzuetarako aurreikusita dagoen tratamendua hogei urtez luzatzea, horixe da sendagai antsiolitikoak kontsumitzen dituzten milaka pertsonaren egoera. Bentzodiazepinen multzoko botikak gaixoei eragiten dien menpekotasuna kezka bihurtu da sendagile eta osasun arloko profesional ugariarentzat, botika psicotropikoaren albo-ondorioak betikotzen baititu. Luzaz hartzen badira, erroko gaitza ez sendatzeaz gain, asko baldintzatu dezakete gaixoaren eguneroko bizitza. Informazioa eta sendagileen balorazio egokia nahikoa dira maiz, menpekotasuna saihesteko.



Hegoi Belategi
@MrRavenPlace

Gaur egungoa berehalakotasunaren gizartea da, gauzak bizkor egin behar dira eta etekinak are eta bizkorrago lortu behar dira. Gaixotasunekin eredu bera jarraitzen da, gaizki sentitzen garenean sendagilera joan eta hark emandako pilula miragarri batzuei esker ahalik eta azkarren osatzea espero dugu. Eredu horrek logika izan dezake gripea sendatzeko, baina nolaz senda dezake pilula batek buruko gaixotasun bat bestelako terapiarik egin gabe? Siplea da, ezin du.

Bentzodiazepinak hipnotiko edota antsiolitiko gisa erabiltzen diren substantzia psicotropiko talde oso bat dira. Hau da, insomnia eta antsietate arazoak tratatzeko balio duten farmakoak dira; hartzen dituenak lasaitasun sakona sentituko du, pilulek nerbio sistema inhibitzen baitute. Farmako hauek menpekotasun eragin handia dute, hori dela eta tratamenduaren iraupena zehatza da: insomniorako preskribatuak badira

bi eta lau aste bitartekoa, antsietatea murrizteko zortzi eta hamabi aste bitarte. Epe horietatik aurrera ezinbestekoa da gaixoak dosia gutxitzea, menpekotasunik ez garatzeko eta "errebote efektua" saihesteko. 2014ko Nafarroako Informazio Farmakoterapeutiko Buletinean argitaratutakoaren arabera, lurralde horretako populazioaren %8k bentzodiazepinak kontsumitzen ditu, eta horietako askok gutxienez hamabost urtez hartu dituzte pilulak. Lorazepam eta diazepam, hau da, Orfidal eta Valium dira farmako erabilienak.

Menpekotasun bat bestearen orde

EHUko Medikuntza Fakultateko Farmakologia sailean irakasle den Koldo Calladok dioenez, funtsezkoa da sendagileek eta gaixoek argi izatea bentzodiazepinak ez direla betiko: "Hainbat aste igaro ostean, sintomek ez badute hobera egin, posible da gaitza beste

bat izatea. Depresioak adibidez terapia behar du, eta ez pilulak soilik". Ezin da arazo bat beste batez ordezkatu, arazoa konpontzen saiatu behar da. Zenbait droga uztearen ondorioetako bat antsietatea izan daiteke, eta sendagileek sarritan bentzodiazepinak erabiltzen dituzte gaixoa lasaitzeko. Gaixo horrek menpekotasuna garatzen badu, droga bat beste batez ordezkatu litzateke, besterik ez. Balorazioa gakoa dela uste du Calladok, "sendagileek, bentzodiazepinak agintzean, tratamenduaren jarraipena egiteko ardura hartu behar dute. Denok ditugu ezinegona eta urduritasuna eragiten dizkiguten arazoak, pilulek unean-unean gaixoa lasaitzeko balio dezakete, baina ez dute sendatuko".

Nolabaiteko kezka piztu da sendagileen artean, baina oraindik ez da sistema alternatiborik proposatu eta erabakia osasun zentroen esku dago. Hala ere, egungo gizarte ereduak jendea botikak



hartzera bultzatzen du Calladoren iriziz. Medikuak ez du erru guztia.

Ana Azparren Osasunbideko teknika-riaren ustez, kasu askotan informazioa aski izan daiteke gaixoen botikak pixkanaka utzi ditzaten. Bentzodiazepinak depreskribatzeko estrategiak txoste-

naren egileetako bat da Azparren. Hor azaltzen dutenez, esku hartze minimo batzuek menpekotasuna murriztu dezakete. Gaixoari gutun bat bidaliz, edota bilera batean tratamendua murriztu behar duela jakinaraziz, botiken uzte tasak nabarmen handitzen dira.

Loaren giltza

OCU Kontsumitzaile Elkartearen arabera, antsiolitiko kontsumoak %57 egin zuen gora 2000 eta 2012. urteen artean Espainiako Estatuan. Orduetik kontsumoa berdintsu mantendu da. Osasunbideak argitaratutako txostenak bentzodiazepinak uzteko irizpideen berri ematen du, baina asmo nagusia bestelakoa da Azperrenek adierazi duenez, “sendagileei kritika egitea baino, gure gizarteak edozein arazoren aurrean botikak hartzeko duen ohitura zalantzan jarri nahi dugu”. Botikak mesedegarriak izan daitezke, baina azken aukera izan beharko lukete. Insomnioa duen jendeak bentzodiazepinak garaiz uzten ez baditu, pilulen menpeko izango da beti lo hartu ahal izateko. Haatik, badira farmakorik gabeko alternatibak. Hainbat osasun zentrotan antolatzen diren “loaren tailer-rrak” eta psikoterapia oso lagungarriak izan daitezke antsietatea duen jendearentzat. Helburua ez luke izan beharko pilulen bidez lasaitzea edo lokartzea, naturaltasunez lortzea baizik.

Bentzodiazepinek arazoak eragiten dituzte, baina asko errezetatzen dira, eragin bereko beste farmakoak arriskutsuagoak baitira. Hausnarketa egin behar da farmakoaren alde on eta txarrez, argi izanda zeintzuk izan daitezkeen kalteak epe luzean.

Sistema kognitiboari eragindako kalteak dira ohikoenak: memoria galerak eta arreta mantentzeko zailtasunak bereziki, baina oinaze fisikoak ere bai, kontsumitzaileek ahulezia sentazioa izaten dute eta. Albo ondorio zuzena ez bada ere, depresioak maiz ematen dira. Hori jakinik, esanguratsua da plan sistematikorik egin ez izana urte askoan menpeko izan den jendeak bentzodiazepinak utz ditzan. ■



Euskalduna hitza
Bertakoa bihotza

1981EKO UDABERRITIK
XARETA-BAZTAN BIDASOALDEKO
BELARRIAK GOXATZEN

ELIZONDON ☎ 948 581 226 · ✉ xorroxin@gmail.com
LESAKAN ☎ 948 638 288 · ✉ xorroxinlesaka@gmail.com

erran.eus/irratia

f xorroxin.irratia @xorroxinirratia

Eguna, 80 urte

Euskal prentsaren atzoko agonia eta gaurko indarra

Zortzi hamarkada dira, 1937ko urtarrilaren 1ean euskara hutsezko *Eguna* berripapera sortu zutela eta ekitaldi mordo egiten ari dira efemeridea gogoratzeko. Denbora honetan guztian euskal prentsak egindako ibilbidean, borondate politikoa eta komunitatearen babes funtsezkoak izan dira euskara hutsezko prentsa normalizatu bat izan dezagun.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Gerrak sortu zuen eta gerrak desagerrarazi. *Eguna* lehen euskal egunkariaren bizitza laburra izan zen oso, sei hilabete baino ez zuen iraun, ekainaren 13an, faxistek Bilbo hartu baino egun batzuk lehenago utzi zioten argitaratzeari.

Hala ere, bere sorrera eta ibilbidea itu moduan hartu izan dute askok, erakutsi baitzuen borondate politikoa izanez gero -Agirre lehendakariaren gobernuarena- posible zela euskara hutsezko egunkari bat aurrera ateratzea, baliabideak urriak eta testuingurua gogorra izanagatik ere. Ez da harritzekoa 80 urte geroago han eta hemen *Eguna*-ren sorrera gogoratzeko ekimen eta omenaldi egitea.

Esaterako, *Berria*-k egunez egun *Eguna*-ren zenbaki bat plazaratzen dihardu paperean eta webgunean. Bilboko Udalak, bestalde, berrikitan oroigarri bat jarri du Posta kalean eta han izan ziren Juan Mari Aburto alkatea, Bingen Zupiria Eusko Jaurlearitzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, eta baita Euskaltzaindia, *Deia*, Euskal Pen Kluba eta Sabino Arana fundazioko ordezkariak ere.

Eragileok jardunaldia antolatu zuten otsailaren 10ean, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hainbat hitzaldi eta mahai-ingururen bidez 1937ko egunkaria, 70eko eta 80ko hamarkadan egosi ziren proiektuak eta gaur egungo euskal hedabideak izan zituzten hizketagai. Joseba Agirreazkuenaga *Eguna* egunkaria gertutik ikertu duen historia katedradunaren esanetan modernotasunez jokatu zuen, baina era berean "egunkari agonikoa" izan zen, garai historikoak baldintzatuta.

Aitzindaria euskararentzat

Lehen egunkariaren sorreran bete-betean ibili zen Estepan Urkiaga *Lauaxeta* olerkaria. *Euzkadi*-n argitaratzen zen euskarazko orrialde bakarraren ardurduna izan zen ordura arte, baina gerra medio atal hori kendu zuen periodiko jeltzaleak, eta haren orde euskarazko egunkari bat sortzea agindu zuen alderdiak, altxatutakoen aldeko hainbat hedabideren azpiegiturak konfiskatu zituztela probestuz.

Eguna-n ibili ziren kazetari Agustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Alexander



Mendizabal eta Jose Maria Arizmendiarrak. Horrez gain, kolaboratzaile sare bat ere bazuten. Xabier Altzibar EHUko irakaslearen ikerketa batek argitu du ehun lagunetik gora bildu zituela egunkariak bere inguruan; tartean Julia Gabilondo, Julene Azpeitia eta Rosa Bustinzaren lanak argitaratu zituzten, baita *Basarri* bertsolariarenak ere. Egoera erabat prekarioan egin zuten lan, gerrak baldintzaturik,

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

EAJ-PNV



Bilboko Posta kalean 'Eguna'-ren omenez oroigarria jartzeko ekitaldia.

1937-2017: Gu gara euskal prentsa

Eguna-ren aurretik izan ziren beste saia-kera batzuk euskarazko egunkaria sortzeko. 1936ko gerra baino lehen hainbat hedabide euskaldun zeuden Ipar eta Hego Euskal Herrian. Kazetaritza lanetan gehien nabarmendu zena, baina, Donostian argitaraturiko *Argia* zen: egunkari formatuko astekari honetan orotariko gaien inguruko informazioa ematen zen.

Esperientzia horretatik abiatuta, Xabier Lizardi idazleak esku artean izan zuen euskarazko egunkari bat sortzeko proiektua, ekonomikoki azterturik zeukan eta izena ere jarri zion: *Bai*. Bere alderdikide jeltzaleen erantzuna “ez” izan zen ordea. Izan ere, EAJk nahiago izan zuen Gipuzkoan argitaratzen zuen *El Día* egunkariak euskarazko orri bat kaleratzea –Bizkaian *Euzkadi*-k egiten zuen moduan– estrategia horrekin jende gehiagorengana iritsiko zelakoan-edo, eta euskal egunkariaren ametsa zapuztu egin zen.

Deigarria da jokabide horrek zer antzekotasun duen 40 urte geroago, Trantsizio garaian ezker zein eskuineko indar abertzaleek hartutako erabakiarekin. Behin frankismoaren zentsura amaituta, euskarazko egunkari bat sortu beharrean, prentsa elebidunaren alde jo zuten –*Egin* eta *Deia*– eta euskara hutsean aritzen ziren hedabideak airean utzi zituzten, tartean *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* bera. Hurrengo hamarkadan ARGIA astekariaren magaletik eta gizarte zibilaren bultzadaz euskarazko egunkaria ernatzear zela, Gasteizko gobernuaren diru-laguntzak medio beste behin zokoratu nahi izan zuten zen-

eta bestelako informazioa ere eskaintzen zuen arren, fronteko albisteen eguneroko bilakatu zen. Javier Diaz Noci Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitateko irakasle eta euskal prentsaren historian adituak Euskal Irratietan azaldu duenez “tonua eta estiloa informatiboa” zuen, hala ere.

Euskara idatziari ere ekarpen aberatsa egin zion egunkari gazteak. Kazetari bakoitza bere euskalkian ari-

tzen zen arren, denek irakurtzeko moduan idazten saiatu ziren. Batez ere Bizkaian, aranismoak joera zegoen, erdal hitzak baztertze aldera euskarazkoak asmatzea alegia: “Baina *Eguna*-n denetariko kazetariak zeuden –dio Diaz Nocik– frankisten esku geratutako Gipuzkoatik etorriak, bizkaitarrak... Horregatik, ahalegina egin zuten euskara ulergarrian idazten”.

55€ urtean

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...
jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea

www.alea.eus/harpidetzak

'EGUNA', 1937KO SEI HILABETE ETA SEI AZAL



Egunaren ale guztiak interneten kontsultatzeko moduan daude *Armiarma* atariaren *Euskal Prentsaren Lanak* atalean. Haien bidez ikus dezakegu 1937an gerraren bilakaera abertzale errepublikarren ikuspegitik eta gertaera garrantzitsuenen berri ere jakin dezakegu. Hemen dituzue sei hilabete teko sei *Eguna* esanguratsu: **1)** Urtarrilak 5: Alemaniarrek gogorki "suagatu" zuten Bilbo. Erasoaren mendekuz izandako preso eskuindarren hilketez ez dio ezer ordea. **2)** Otsailak 14: Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietatik ehunka haur egotzi zituzten faxistek –berriki Zumaian omenaldia egin diete 80 urte igarota–. **3)** Otsailak 24: Kandido Sasetar gudari komandantea hil zuten frontean, Asturiasen, "arrotzen lurretan". **4)** Apirilak 28: Gernika kiskali eta bi egunera "haritza zutik gelditu da, zutikago euzkotarren gogo" dio berripaperak. **5)** Maiatzak 7: Erbesterik gogorra hasi zen, haurrena, eta *Habana* ontzia izan zen haren ikur. **6)** Ekainak 4: Lemoako batailan gudariaren azken garaipena, Bilbo erori aurretik.

baitzuk euskal prentsa erdal medioetako edizio eta gehigarrietara.

Denborak erakutsi du baina, euskara hutsezko prentsa-proiektu osoak izan direla euskararen normalizaziorako tresnarik efektiboena. Hala izan zen 1937an *Eguna*-rekin –gerrako lubakietaraino

iristen ziren euskarazko orrialdeak– eta hala izan zen 1990ean sortutako *Euskaldunon Egunkaria*-rekin ere.

Galdera bistakoa da: beste 40 urte igarota, Eusko Jaurlaritzaren borondate politikoa eta estrategia zein ote da? Kezkaturik irakurri berri ditugu (ARGIA

2.538 zk. 36 orrialdea), esaterako, interneten euskara sustatzeko hedabideentzako diru-laguntzak nola bideratzen dituen EAEko administrazio autonomikoak. *Agonia* berriz ere komunitatearen indarrak gainditu beharko du euskal prentsak, dirudienez. ■

MAHAMUD ETA BILBOKO ITSASADARRA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Bilbo, 1511ko ekainaren 22a. Joana Gaztelakoak –Joana Eroa ezizenez ezagunak– Kontsulatua abian jartzeko erregalia eman zion hiriarri. Ordura arte, artilearen merkataritza kontrolatzen zuen Burgosko Kontsulatuak Bizkaiko golkoko portuen arteko lehia estua sustatu zuen. Baina handik aurrera, Bilboko itsasadarrean bertakoek hartuko zituzten erabakiak. Kontsulatu berria itsasadarrarekin, nasekin, dragatzeekin... zerikusia zuten gaiez arduratuko zen. Bertako merkataria, ontzi-jabe edota olagizonek zainduko, berrituko eta hobetuko zuten itsasadarra, eta portu naturalaren merkataritza jarduera bultzatuko zuten horrela.

Horrenbestez, XVI. mendearen erdialdean Bilboko itsasadarra bideratzeko lanak egin zituzten lehenengoz. Eta lehen bideratze hartan Gonzalo Saez de Mahamud nabarmendu zen. Batetik, lanei egindako ekarpen ekonomikoagatik. Eta bestetik, izenaren jatorri musulmanagatik. Gogoan izan behar da, garaiko foru arauen arabera, moriskoek, juduek eta kristautasunera konbertituek debekatuta zeukatela Bizkaiko jaurerriaren bizitzia. Are gehiago kargu publikoak izatea.

Baina Gonzalo Saez de Mahamudek kargu publikoak izan zituen. Bilboko errejidore izan zen 1543tik 1551ra eta,



Goian, Bilbo XVI. mendean, Franz Hogenberg-en grabatua (1575). Garai hartan egin zituzten itsasadarra bideratzeko lehen lanak, nagusiki Gonzalo Saez de Mahamudek bultzatuta. Lerro hauen alboan, Mahamuden sinadura, Camilo Villabaso Echevarriak 1881ean 'Euskal-Erria' aldizkarian jasoa.

N.º 52.
Gonzalo Saez de Mahamud.

besteak beste, Merkatarien Fidel izendatu zuten. Agiriek erakusten dute botere ekonomikoa ere bazuela; dohain eta zerbitzu askotan haren izena agertzen da diru kopuru handien aldamenetan. Bizkaiko familia nagusiekin, ezkontzen bidez, lotura zuela badakigu, hala nola Zurbaran eta Markinatarrekin.

1881ean, Camilo Villabaso Echevarria foruzale eta diputatuak Mahamuden sinadura jaso zuen *Euskal-Erria* al-

dizkarian, itzal handiko beste bizkaitar batzuenarekin batera. Eta azpian, pertsonaiaren azalpen labur baten ondoren, zera idatzi zuen: "Zer jatorri zuen familia hark? Abizenak adierazi bezala, haren leinua moriskoa izanik, nolatan etorri zen bizitzera konbertitu berriekin ere muturreko etsaitasuna nagusi zen herrialdera?"

Egun, galdera horiek ez dute oraindik erantzunik. ■



MARI YAMAZAKI / TORI MIKI

Antzinako Erromako manga

Mari Yamazaki manga egileak *Thermae Romae* komikiaren hamar milioitik gora ale saldu ditu. Egungo Japoniara bidaiatzen duen terma-ingeniarria da protagonista. Halaber, Yamazakik antzinako Erroman kokatu du *Plinius* komiki-sorta. Erromatar Inperioaren eta Japoniaren arteko loturak xeble samarra dirudien arren, egilearen esanetan hainbat paralelismo daude bi

munduen artean: "Testuinguru espiritual politeista, bainu komunak, kanpoko ekarpen kulturalak baliatzeko gaitasuna...". Gainera, joan den irailean hainbat erromatar txanpon aurkitu zituzten Okinawako Katsuren gazteluan, eta aurkikuntzak Erromatar Inperioaren eta antzinako Japoniaren arteko harremanei buruzko galdera asko eragin ditu. ■

Azak makilakadaka



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Nondik norako oporrak antolatzeko garaian, landareak aitzakia izan ohi dituenik bada: goi-mendietako baso, oihan tropikal, jardin botaniko, lorategiren bat, gereziendoen loraldia... Egia esan, nonahi dago landaretik eta joaten zaren tokira eramaten zaituztela, berdin dio, zer ikasia izango duzu. Hala ere, aurtengo oporraldiarekin zalantzetan eta nola moldatu ezinik bazabiltza, Atlantikoa proposatu nahi dizut: Anglo-normandiar uharteak.

Uharte horiek toki xelebrea dira. Ingalaterrako erreginarene menpeko dira, baina ez dira Erresuma Batuen parte, ezta Europar Batasunarena ere. Historia berezia dute, eta Ingalaterra eta Normandia artean egoteak baldintzatu ditu bertakoen bilakaera eta kultura. Klima latza dute, eta horrek bizimodua behartu du: aza jale amorratuak dira. Antza dute Atlantikoko haizeteek gogor erasotzen duten beste mutur batekin, Galizia-ekin, eta uztarrarian lotzen dituen hedeak aza da. Aza berezi bat: *Brassica oleracea* var. *longata*. Gallego-azak bezala, ez du bururik egiten, eta hostoz hosto jaten da. Hostaia aziendari eman izan zaio, behikundeari eta artaldeei batez ere. "Aza-hostokako" eta "aza-hostokatzeko" deitzen zaio euskaraz. Hostoak kendu ahala muturreko kimuak berriak ematen



CH-INFO.CH (CC-BY SA)

Goiko argazkian, Ingalaterra eta Normandia arteko Jersey uhartearen kostaldea. Eskuinean, bertako Jacquelyn eta Philip Johnsonek aza-hostokakoaren enborrekin egindako makilak. Gaur haiek dira egile bakarrak, baina duela mende bat 30.000 aza makila inguru esportatzen ziren urtean.

ten ditu, luza eta luza eginez. Pixkanaka enbor soildua gero eta luzeagoa azalduko du. Sei metro artekoak neurtu izan dira. Bai, bai sei metro! Azaren zuztar hori makilak egiteko erabili izan dute. Udazkenean moztu, behar bezala lehortu eta izugarritzko zur dotorea lortzen da. Ondoren eskura leuntzeko lisatu eta berniza edo argizaria ematen zaio. Duela mende bat, urtean 30.000 aza makila inguru esportatzen zuten. Gaur



JACQUELYN & PHILIP JOHNSON

egun etxe bakar batean soilik egiten dituzte, Jacquelyn eta Philip Johnsonek. Oporraldian bisitatu nahi ez badituzu, 60 euro eskasengatik etxera ere bidaltzen dizute. Edo, hobe dena, saltzen dituzten haziak erosi (50 ale, 4 euro) eta zerorrek sortu makiletarako aza-zuztarrak. Beno, aza non haziko den, aza-zurtaina, aza-zuztarra, aza-kirtena, aza-zangarra, aza-zangoa, aza-girtaina, aza-ipurdia, aza-ondoa, aza-orpoa, aza-trontxela, aza-trukutza, aza-truxa edo izango da... Izan ere, euskaldunona kultura atlantiarra izan... ■



Axpe baserria, Atxondo auzoa
48270 Markina- Xemein (Bizkaia)
☎ 946-168285/ 655734625
axpesagardoa@yahoo.es
www.axpesagardoa.es





JOSENEA

Bertako infusio ekologikoak, errespetuz eginak



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Landare usaintsuen eta sendagarrien hazkuntzan lan egiten du Josenea elkarte soziorabialak. Irati ibaiaren ertzean, Irunberriko (Nafarroa) Bordablanca parajearen dituen lurretatik gure katiluetara egiten dute salto Joseneako landareek, infusio moduan gehienak, baina baita bestelako produktuen formarekin ere: ongailuak, txokolata, olio esentzialak edota kosmetikako produktuak, esaterako.

Printzipio ekologikoekin landuak

2002an sortu zuten Josenea elkarte soziorabiala. Hasieratik egin zuen ekoizpen ekologikorako hautua, eta bere lurretako landare, zuhaixka nahiz arbola barietate guztiak era horretan ekoizten dituzte. NNPEK Nafarroako Nekazaritzako Produktzio Ekologikoaren Kontseiluaren zigidua du Joseneak.

Ingurumenarekiko errespetua elkarrearen oinarrietako bat izanik, azpiegiturak modu berezian daude diseinatuta eta eraikita Irunberriko gunean: landareen hazkuntza lanetarako energia berriztagarria soilik darabilte (eolikoa eta fotoboltaikoa). Lehortegiak bero-

tzeko, adibidez, eguzki-beroaz baliatzen dira egunez, eta biomasa galdara bidez gaez.

Funtzio soziala eta ingurumenekoa

Gizarte-bazterketari aurre egitea izan da Joseneako proiektuaren ezaugarri nagusia, bere sorreratik. Horretarako, lanpostua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak laguntzen ditu elkartek, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Ongizate Sozialaren Nafarroako Institutuarekin batera. Enplegua aurkitzeko arazoak dituzten gizataldeei erremintak eskaintzea da ideia, langileentzat zubi edo tranpolin moduan jokatzea. Gizarteratze prozesuan dauden hogeit hamar pertsona inguru dituzte kontratatuta, eta Joseneako teknikarien laguntzarekin eta jasotzen duten formazioarekin, bertatik pasatzen diren gehienek lan mundurako sarbidea topatzen dute (2015ean %90 inguruk, elkarrearen arabera).

“Ekologikoaren eta sozialaren arteko elkartzea ezin hobea da, naturarekiko eta pertsonetikiko errespetuak bat egiten dutelako”, dio elkartek. ■

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 21: Onati Okilei buruzko hitzaldia

Basoko artz hauen inguruko biodibertsitatea azalduko du Migel Mari Elozegi, biologo eta basozainak, 19:00etan kultur etxean.

Otsailaren 21ean Gabirian eta 22an Idiazabalen: Sagarrondoak kimatzeko ikastaroa

21ean Gabino Muruak atal praktikoa landuko du, Gabiriako Erbie elkartearen, 15:00etan hasita lau orduz. Eguraldi ona bada, 22an 15:00etan hasita Idiazabalen Ramon Aseginolazak ikastaro praktikoa emango du. Eguraldi txarra bada, atzeratu egingo da. Izena emateko deitu 679 972 372 zenbakira.

Otsailak 26: Espejo Tokiko frutarbolen banaketa

Euskal Herriko Hazien Sareak tokiko frutarbolen zaindari izatera gonbidatzen zaitu. 9:30etatik 11:00etara Zaindarien Topaketa egingo da Gizarte-Zentroan. 11:00etatik 15:00etara, berriz, frutarbolen banaketa, elkarrearen mintegian, Bergondan.

Martxoak 4 eta 5: Igorre Basogintza jardunaldia

“Basogintza eredu berriak, etorkizuneko politika publikoak eta jendartea ahalduntzea” izenburupean, 3. jardunaldiak egingo dituzte. Martxoaren 4an, 9:30ean hasita aurkezpen laburrak egingo dituzte, Kultur Etxean. Arratsaldean *Gutik Zura* filma emango dute. Martxoaren 5ean Muruara ibilaldi gidatua egingo dute.

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera
idatzi edo www.bizibaratzea.eus
webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

INTXORTARA BISITA

1

Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua

36ko Gerra Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide honetan Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera izango dute hilabete honetako zozketan sarituek. Ibilbidea Elgetatik abiatzen da, lehendabizi Interpretazio Gunea bisitatuz eta ondoren bost kilometroko ibilbide tematikoa oinez egingez. Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroa Elgetan dago kokatuta eta bi osagai nagusi ditu. Bate-

rik, Intxortako magaletik egiten den ibilbideak, Elgetan kokatutako frontearen berreskurapena du oinarri, hainbat lubaki eta babesleku ikusgai dagoelarik. Bestetik, erakusketa iraunkor bat ere badago ikusgai, ikus-entzunezko materialez eta garaiko tresneriaz osatua eta maketa batek lagundua, frontearen kokapena ulertu ahal izateko. Otsaileko zozketetan parte hartzen duten kideen artean, lau sari banatuko ditugu hiru pertsonarentzako.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ELGETAKO UDALA

turismo@debagoiena.net
www.turismodebagoiena.com

#oroimen-historikoa
#ingurumena
#36ko gerra

Otsaileko sariak

1



Pecoza United
taldearen diskoa
5 KD

2



Izaro Gorostidiren
Mariametsetan poema liburua
4 ale

3



AEK. Korrikaren 20. edizioko
kamisetak
5 kamiseta

4



Intxortako frontera
bisita gidatua
3 pertsonarentzako, 4 sari

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

**Gu dagoeneko desentxufatu
gara Garoñako zentraletik**



ARGIA berriztagarria izango dugu hemendik aurrera



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

ARGIA GoiEnerreko bazkide egin da. Mundu pixka bateko irakurlea izango zara zu ziurrenik, dagoeneko ezagun izango duzu GoiEner, eta ez nator zuri sermoirik botatzera. Baina nik kuriositatez deitu egin dut webgunean eskaintzen duten telefonora, energiaren kontu hauek argitzeko. Santiago Ochoa de Eribe GoiEnerreko zuzendariak erantzun dizkit galderak.

Energia elektrikoa oinarrizko ondasuna da eta zuen helburua herritarrek honen kontrola berreskuratu eta kontsumo arduratsu bat izatea da. Nola lortzen da?

Alde batetik energiaren merkaturatzea dago, eta bestetik ekoizpena. Merkaturatze kooperatiba bat sortu genuen aurreneko bideari heltzeko, eta bazkideak ditugu oinarri; gaur gaurkoz 6.000 inguru. Aholkularitza ere eskaintzen diegu bazkideei, helburua kontsumo arduratsua denez, beharrezkoa dutena kontsumitzeko erregulatu dezaten potentzia. Baina kontua ez da faktura bat soilik, filosofia da jarduera ekonomiko hutsetik aldendu eta gizartearen eta ingurumenaren beharrei begira lan egitea. Energia ekoizpena herritarren eskura jartzea da bigarren bidea, eta martxan jartzen ari gara hau. Ekoizpena gure esku badago lortuko baitugu ener-

giaren benetako kostea zein den ezagututa prezioaren negoziaketan subjektu aktibo izatea.

Nola lortzen duzue saltzeko energia?

Salerosketarako merkatu bat dago eta guk han erosten dugu gure bazkideek beharko duten energia. Guk erosten dugun guztia berriztagarria izanik ere, etxeetaraino heltzeko sarean beste energiekin nahasten da. Dena dela, merkatuaren bitartekaritarik gabeko bideak bilatzen ari gara eta ekoizleekin zuzenean harremanak egin nahi ditugu.

Esan duzu gure etxeetara ez dela %100 energia berriztagarria iristen. Orduan zein da zuen desberdintasuna?

Kontsumitzaileak jasotzen duen produktuan ez dago desberdintasun handirik. Tira, geroz eta bazkide gehiago izan geroz eta energia berriztagarri gehiago sartuko da sarean, beraz, portzentaje altuagoa izango da, baina filosofia eta helburuek egiten gaituzte desberdin. Enpresa ikuspegitik kontraesana badirudi ere, guk geroz eta energia gutxiago kontsumitzea dugu helburu, energia ulertzeko beste modu bat dugu jasangarriagoa dena. Eta aldi berean bazkide gehiagoren bila goaz, kontsumitzen den hori berriztagarria izan dadin. ■

“(ARGIAkoa egiteko arrazoia) Erreferentziatzeko euskal hedabidea delako eta herrigintzak zein guk geuk, halako proiektuak elikatzen jarraitu behar dugulako. Eskerrik asko egunero egiten duzuen lanagatik”

Olatz,
ARGIAkoa

Bozkatu zure blog gustukoena

Azkue Fundazioak, ARGIAren laguntzarekin, bigarren Blogetan! lehiaketa jarri du martxan. 129 blog aurkeztu dira, lau kategoriatan sailkatuta: 58 kultura arlokoak dira; 27 aisialdi kategoriarira lotuta; 21 gizarte eta politika kategorian; eta, zientzia eta teknologia kategorian parte hartzen daudenak 23 dira. Blog hauek ezagutu nahi badituzu eta gustukoeneri zure bozka eman, www.blogetan.eus webgunean duzu aukera.

Sarean arrantzatua



ENAUT

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Asteleheneran, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.

Patxi Larrion, idazlea

“Elipsirik gabe ez zen nire nobela izango”

Bergara, 1964. Nafarroako Euskarabidea institutuan irakaslea. Historialaria eta kazetari izana. *Feriatzaileak* (Susa) nobelarekin jalgi da literatura plazara. Sare sozialen bidez ikusi dugu koktelera eta maleta eskuetan. Osagai bi horiek, maletak eta koktelak, berebiziko lekua hartzen dute liburuan. Hitz “berri” zenbait ekarri ditu. *Feriatzea*, konparazionera. Nongoa den galdeturik, bere zorroko hitz bat eskaini digu Patxi Larrionek: “Mugirokoa” naiz. Giro bizia dagoen tokikoa, alegia.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nobelagile bezala plazaratzea ustekabe-ko galanta izan dela erranen nuke, baita Bergaran sortu zinela ohartzea ere.

Bergarak zerikusia dauka liburuarekin. Gure gurasoak lanera joan ziren Bergarara gu jaio aurretik; Allin ibarreko Etxabbarri herrixkakoak ziren, Urbasa aldekoak. Etxabbarritik Bergarara joan-etorri asko eginak gara etxekook, trenez egin ere. Lizarratik atera eta Bergararaino joaten ginen –Zumarragan gaindi edota Gasteizetik buelta eginez–, tren horietako bat *La Vasconavarra* zen, 1968an desagertua. Zenbaitetan osabaren batek hurbiltzen gintuen Lizarrara trena hartzera, edo Etxabbarria eramaten itzulzearan.

Feriatzaileak girotua den garaian itxi zen *La Vasconavarra*. Gurasoek kotxe bat erostea erabaki zuten eta Urbasa sarri zeharkatzen genuen. Orduan la-

ketu nintzen Urbasarekin. Etxebarri inguruaz ditudan lehenbiziko oroitzapenak *Patton* filma errodatzen ari zen urtekoak dira: aitatxi-amatxi, osaba, aita eta ama, Urbasan egiten ari ziren filmaz hizketan. Gerora, filmeko irudiak ikustean “toki hori eta bestea” zehazki non zeuden seinalatzen zizkituten.

Beraz, txikitatik izan zenuen zinearen berri, eta ez pantailatik baitezpada.

Bai. Txikitatik lotu ditut Urbasa eta zinea. Etxabarrira bidean hauxe irakurtzea gogoratzen dut: *Al rodaje*. *Patton* filmaz beste, *Hiru Mosketariak*, *Cromwel* eta *Robin and Marian* filmen eszenak ere Urbasan errodatu zituzten. Gure lehengusuek eta haien lagunek estra moduan parte hartu zuten hola-koetan.



Hainbatek haurtzarora jotzen dute euren aberritzat. Zure aberria Urbasan eta bere inguruan dago, antza.

Iruñean ez behintzat. Ni Bergarakoa naiz, eta Etxabbarrikoa sentitzen naiz, aita eta amaren herrikoa. Oraindik ere izeba eta osabak ditut Allin ibarrean. Senideak eta txikitako lagunak ditut bertan, baita Gipuzkoan ere. Allin ibarrean arnasa hartzen dut eta Bergaran ere bai. Badakizu zer poza eman zidan nobela Bergaran aurkeztu izanak! Dena den, bereziki ni “mugiro” dagoen tokikoa naiz. “Mugiro”-n laketzen naiz. Martin eta Luis protagonistak nagusien nondik norakoak ezagutuz gero, antzematen da “mugiro” zer den.

Nobela hirian gauzatzen da, baina oso menditarra ere bada.

Hala ere, mendia edo landa mundua beste gisa batez agertu nahi izan dut. Euskal



Herrian eta munduan orobat, mendia leku isolatua balitz bezala transmititu zaigu. Literaturan ere mendia beti lotu da isolamenduarekin: toki mugakideak balira bezala. Aldiz, niretzat Allin ibarra edo Urbasa mendia justu kontrakoak dira, elkartzeko tokiak izan dira.

Nobelari izenburua deigarria ipini diozu: *Feriatzaileak*.

“Feriatu” hitza gaztelaniaz erabili izan da batez ere, eta aurrerantzean, espero dut euskaraz ere erabiltzea. “Feriatzea” Nafarroa erdialdean erabili izan da gehienbat, “*agenciar*” da, lortzea. Berez ez da ebatsi, baina izan daiteke, eta izan daiteke ere erostea. Editoreak eta enparauek hitza onartu zidaten. Familiaren inguruan entzundako hainbat feriatzeek lagundu didate nobela osatzen.

Martin eta Luis dira protagonistak, feriatzaileak alegia. Azaldu iezaguzu nobela.

Batzuek esan dutenaren kontra, nobela bi gazteen “feriatze” bat baino gehiago dela uste dut, abenturaz harago doana. Zentzu horretan, *Patton* filma nobelaren atrezzo da. Nire ahalegina frankismoaren akaberako giroa agertzea izan da, karlismoaren inguruko gogoeta egitea barne. Aldi berean, nobela politikoa eta ekonomikoa da. Trama diru-truke baten inguruan eraikia da. Ustez ahulak diren batzuek indartsuak –nagusiak– diren beste batzuei ebasten diete, feriatu egiten diete, baina horretarako bizkorrak izan behar dute, baita indartsuen laguntza izan ere.

Oso garbi nuen, lehenasuna tramak edukiko zuela, Martinen begietatik kontatuta dago, bera eszena guztietan presente dago. Horren barnean, zineman

“*Hiru Mosketariak, Cromwel eta Robin and Marian* filmen eszenak ere Urbasan errodatu zituzten. Gure lehengusuek eta haien lagunek estra moduan parte hartu zuten holakoetan”

“Niretzat nobelan ez dago manikeismorik, nik feriatze batzuk kontatu ditut. Kontakizunean ez da pertsonaia bat goratzen eta beste bat apaltzen”

“*Feriatu* hitza gazteleraz erabili izan da batez ere, eta orain, aurrerantzean, espero dut euskaraz ere erabiltzea”

ematen den modura kontatu nahi izan diot irakurleari tramaren amaiera. Gerran irabazle atera direnek ez jakitea ziria nork sartu dien. Lortu nahi nuen filmetan gakoa izaten dena. Horretan, puzzle osatze lana dago, Martinek batten ditu piezak. Trama da inportantea, baina den-dena ez da bere mesedetan, istorioan historiak ere pisua baitu.

Historiaren gaineko istorioa nobelatu duzu. Baztango (H)ilbeltza nobela beltzaren astean ere izan zara ordea. Genero horretako liburutzat duzu *Feriatzaileak*?

(H)ilbeltza ekitaldiaren inguruan Iruñeko hainbat lagun gaude, Jon Alonso eta biok, besteak beste. Antolatzaileak kideztat dauzkat, bertan parte-hartzea proposatu zidatenean, “hau beltza al da?” esan nien. Izan ere, nik ez nuen hildakorik nobelan agertu, ez odolik nahi ere.

(H)ilbeltzan, Miel Angel Elustondo izan zen, Gotzon Garateren nobelagintzaz jardun zuen. “Hildakorik gabeko nobela, beltza izan daiteke?“, galdetu nion. Hark “dudarik gabe” esateak lasaitu ninduen.

Odolik ez, baina ardoa eta janaria nasai daude.

Nobelako protagonistek oso ongi edaten eta jaten dute, baina pasa gabe. Edo ez irakurle *gaixto* batek esan didan hau pentsatzeko ere: “Hire nobela *speedaren* apologia duk”. Ez, inola ere ez. Martinek *gasolina* behar du, feriatzaileek adrenalina behar izaten dute. Martinek ez daki geldirik egoten. Grina, nola mantendu adrenalinarik gabe? Nobelako bi protagonistek lo gutxi egiten dute, guk Sanferminetan bezalaxe. Feriatzeko bizkor eta arin ibili behar da, baita Sanferminetako martxari eusteko ere.

Izeba Irenek: “Goiztiar ala heldu berri?” esan ohi dio Martin ilobari. Luis eta bera bai kuku-txori pareak?

Martin eta Luis uztarri dira. Oso ezberdinak. Alferez-gai dira, aldi berean Kazetaritza fakultatean ari dira ikasten. Luis iruinsema da eta Martin ameskoarra, ongi kokatutako familia batekoa hau ere. Iruñeko Luis bada nor, bere familia, bere aita, baina Martin ere bai. Martin Galdeanoren nortasuna ongi ezagutzen dudana Allin ibarrean dago, haren izaera bertakoa da. Amatxi, amaren ama, Aranaratzekoa genuen, Eulata ondokoa. Bailarak horiek aski endogamikoak dira, gehienak lur jabeak dira, txikiak badira ere; eta lur gutxi daukanak lur komunak erabili izan ditu. 1950eko hamarkadan, industria indartu zen Gipuzkoa aldean, familia guztietako baten bat aritu da Gipuzkoan lanean.

Iruñerrian, Urbasan eta Ultzaman ere garratzen da trama. Euskara joria eta bizia ekarri duzu nobelan.

Euskara batua da, nafar batuan idatzi dut, nafarrerak amankomunean dituen hogeitaka ezaugarri erabili ditut. Jon Alonsok “Larrion hitzen kontrabandista da” esan ohi du. “Feriatzaileak” hitza horren adibidea da, besterik ez. Iruñea erdaldunean moldatu dut hizkuntza, baina ez dut ahalegin berezirik egin. Nik “trago” bakarrean, “klikol” bakarrean esaten dut. Hiztegiaren ez da sekula agertuko, baina nobelan onartu didate. Horiek nire maletan dauden hitzak dira, nire zorrotik atera ditut, hurbilen ditudanak erabili ditut. Ez dut ahalegin berezirik egin, ez dut inor ere harritu izan nahi. Eta leku izenekin berdin. Izen horiek ez diote trabarik egiten nobelari, alderantziz, nolabaiteko hurbiltasuna ematen diote kontakizunari.

Pertsonaien elkarrizketei eman diezu lehentasuna.

Elkarrizketak film batekoak balira bezala ekarri nahi izan ditut, zineko eszenen modura. Elkarrizketei garrantzia eman diet edo horretan ahalegindu naiz. Lortu ote dudana? Hori irakurleek esan behar dute. Maiz entzun dut “hasi eta buka egin dut”. Ez da gutxi. Gari Garaialde foto-kazetariak txio batean “*Feriatzaileak* nobelako Martin eta Luis protagonistekin nabil, lortuko al dute?”. Badakizu, zer poza hartu nuen? Ez dakit gero akaberan gustatu zaion, artean zerbait sorrarazi izan badio, primeran.

Kritikak jaso ditu nobelak...

Egiari zor, nobela hau maskulinoa da, eta kontrasterako bi emakume indartsu sartu nituen, Irene eta Gisèle. Gisèle agertzen den unetik nobelak gora egiten du, Irene izabaren rola ere gakoa da.



Kritika gehienak emakume bi horien profila dela eta heldu zaizkit: “Ez al zegoen beste emakumerik 1969an? Denak neska-me edo putak ziren?”. Ongi da. Ordea, nik adierazi nahi nuena kontatzeko bi emakume horien ezaugarriak behar nituen.

Kritika batean “pertsonaia onen eta gaiztoen arteko manikeismoa” irakurri dugu.

Martin eta Luis maitagarriak dira, baina Salvatore eta Pedrotxo ere bai, beste bandokoak izanda ere. Niretzat ez dago manikeismorik, nik feriatze batzuk konstatatu ditut. Kontakizunean ez da pertsonaia bat goratzen eta beste bat apaltzen.

Zure lehen nobela izanda, non izan duzu traba gehien?

Editatzeko unean moztu behar izan dugu, pertsonaia batzuk sakrifikatu, batzuen rola egokitu... Bestalde, eztabai-



datu genuen fikzioaren eta historiaren artean zeini eman leku gehien. Bada, niretzat garbi dago nobelan zein atera behar den garaile: fikzioa. Nobelaren oinarrian dokumentatze-lan handia dago, gero gezurrak kontatzeko bada ere.

Istoria elipsi-joerari uko egin gabe idatzi duzu.

Pello Lizarralde lankideak dioenez, "Patxi Larrionen jardueran elipsia da nagusi". Ezagutzen nautenek badakite hori dela adierazteko nire moldea. Nik elipsia behar dut, eta nobelan ere ziur aski ezaugarri hori oso presente dago, berez doan estiloa da. Elipsiaren estiloa oso ongi menperatu behar da, noski, eta igual nik ez dut lortu, onartzen dut traba izan daitekeela, baina elipsirik gabe ez zen Patxi Larrionen nobela izango. ■

MALETA ETA KOKTELA

Patxi Larrionen ibileren berri izan dugu sare sozialen bidez. Bergara, Durango, Txantrea, Larrabetzu eta Arizkun ibili da *Feriatzaileak* defendatzen. Xabier Letona ARGIAko kazetariak horrela idatzi du Twitterren: "A ze lanak eta pozak ematen dituen maleta horrek Euskal Herrian barrena, aurkezpenetik aurkezpenera!".

Horrek guztiak sormen prozesuarekin badu zer ikusirik. Gustura pasatu dut nobela idazten eta berau defendatzeko prest nago, deitzen didaten tokira joateko gogotsu. Liburuaren promozioan bi elementu nagusi izan dira: maleta eta koktela. Koktelaren historiak badu zerikusia idazte prozesuarekin. Trama jada nahiko aurreratu nuenean, lagun batek garai bateko notizia hau pasa zidan: "*Patton* koktela hirugarrena geratu da, Nafarroako Kokteleria txapelketan". Miguel Lizarbe barnak prestatu zuen koktelaz ari zen. *Patton* filmeko aktoreak nahiz teknikariak Maisonnave hotelean ostatu hartzen zuten garaikoa. "Hara, badut nobelaren hasiera!" pentsatu nuen. Koktelgile lagun batek berri zuen koktela, eta esan nuen, sikiera, liburuaren aurkezpen egunean neronek ere prestatuko dut. Gero irakurle klubetan eskatu didate, eta aurrera. Bergaran eta Arizkun eginez gero, bestetan ez dira gutxiago izango, ezta?

Liburuaren azalean ageri den maletak ere badu bere historia, berriagoa izan arren.

Maletak eman du joko gehien. Maleta ez, maletak, bi baitira, badute leku berezia

nobelan. Argitaletxeak maleta eskuratu zuenean, azala egin ondoren, "zergatik ez diot eskatzen, azala egin duen Xabiri?" pentsatu nuen. (H)ilbeltza taldeko partaidea da. Azalean agertzen den irudiaren afixa ere badago, film baterako modukoa. Kristoren lana egin dute Susako lagunek. Batzuetan erabiltzen dut, ezusteko politikak izaten dira.

Irakurle izatetik idazle izatera pasa zara. Zer-nolako esperientzia izan da emandako jautzia? Zerbaitek harritu al zaitu?

Beste aldera pasatzea suertatu zait, baina nik mundu hau ezagutzen nuen. Harritu ez, poztu bai. Batetik, poztu naiz jende asko nobelarekin identifikatu delako. Badago bestela pentsatzen duenik ere, noski, adibidez, nobelan leku eta kale izen gehiegi azaltzen direla diotenak. "Horiek kontakizunari edota tramari traba egiten badiete, kentzeko prest naiz" esan nion editoreari. Ezetz esan zidan. Iruñea ezagutzen dutenei, eta ez bakarrik bertakoei, balio erantsi bat eman nahi nien, uneoro jakin zezaten nondik barna zebiltzan protagonistak. Beste batek esan dit, "nik ezagutu nuen garai horretaz beste ikuspegi bat emango nuke". Batzuetan ahalegintzen zara egoera bat transmititzen, pertsonaien harremana dela medio, eta argi dago ez duzula pertsonaia denekin lortzen, baina uste dut gehienetan lortu dudala nahi nuena transmititzea. Ahalegindu naiz sikiera. Orain plazer handia hartzen ari naiz irakurleekin hori partekatzen.

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:

JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak

ARGIA

Emakumeak Azkena Rocken

BERDINTASUNA ANPLIFIKATU NAHI, GIZONEN JUSTIFIKAZIOEKIN TOPO

Musikaz eta matxismoaz aritzean beste estilo batzuek jasotzen dituzte kritika txarrenak, baina hain "gurea" dugun rockaren mundura ere iritsi da eztabaida, aurtengo Azkena Rock jaialdiaren kartelean ia emakumerik ez dagoela-eta. Zeresana eman du gaiak baina, zoritxarrez, jarrera guztiak ez dira positiboak izan.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

"Mesedez, andre eta gizon, zabal dezagun!", dio mezu batek Facebooken. "Hau AR Festibala da! Barkatu, Azkena Rock Festibala. Bi egun, hiru agertoki, 24 talde baino gehiago, eta emakume bat bera ere ez taula ganean. Last Tourrek, antolatzaileak, 200.000 euro baino gehiago jasoko ditu, diru publikotik, gure dirutik. Gasteizko Udalak ez die ezer exijitzen, ezta berdintasun gutxieneko bat ere. Lotsagarria da!". Txinpartak aurkituko du bolborarik inguruan, otsailaren 7tik aurrera ziztuan zabalduko da Dorleta Rata Jones erabiltzaileak sare sozialetan egindako salaketa.

Eta gaia Gasteizko Udaleko Kultura batzordera iritsiko da otsailaren 14an, Ane Aristi EH Bilduko zinegotziak eraman da. Estibaliz Canto Kultura zinegotziak (PSE-EE) esango du ikusi duela auziarekin kezka daukan jenderik, baina "baita deskalifikazioak ere", zeinak erakusten duen, bere ustez, Azkena Rock jaialdiari buruzko salaketa "ondo egina dagoela". Festibaleko kartela itxita egon arren garaiz daude neurriak hartzeko, aprobeitxar-

tu egingo dute Udalak oraindik ez duela sinatu 2017ko edizioari dagokion patronio-kontratua eta, akordio horrek jartzan dizkiela baldintzak antolatzaileei: klausulak sartuko dituzte emakumei leku duinagoa emateko, hori izango da festibalak 270.000 euro jasotzeko irizpideetako bat.

Klausula horiek ez dute aurreikusten emakume-kuotarik. Ane Aristik azaldu du ez dutela eskatzen festibaleko kartelburuak emakumeak izatea ere; bai ordea haien lana zerbitzari izatera ez mugatzea. "Adibidez, hiru eszenatoki ditu jaialdiak eta bakoitzak hildako musikari baten izena dauka: denak dira gizonak", azaldu du EH Bilduko kideak, gogora ekarriz eszenatokitik jokatzeko delat nagusiki nor den ikusgarri eta nor ez mota honetako ebentuetan.

Antolatzaile desafinatua

Horraino dena zuzen. Are gehiago, Kultura batzordean Cantok esplikaturakoren arabera, otsailaren 14 horretarako Udalak hitz egin du baldintza horiei bu-

ruz jaialdia antolatzen duen Last Tour enpresarekin eta honek "erabat ulertu du" Udalaren postura. "Festibalaren partetik ez da problemarik jarri, guztiz kontrakoa". Balada ezti eta erromantikoa biharamuneko *El Correo* egunkarian hasi da desafinatzen: Azkena Rock festibaleko zuzendari Alfonso Santiagoren adierazpenak jaso dituzte eta, zera esan du Udalak jarri nahi dituen klausulen harira: "Inork ezin du bermatu beteko direnik".

Azkeneko momentura arte Heart taldea, Joan Jett, Neko Case, Tori Amos eta Patti Smith ekartzen saiatu direla esan ondoren, Santiagok erabateko "sentsibilitatea, interesa eta jarrera positiboa" izango dutela adierazi du, baina baita kontuan hartzeko rockaren industriaren %95 gizonen osatzen dutela: "Hau pop musikako jaialdia balitz, askoz errazagoa litzateke. Baina, zer egin dezakegu guk? Negoziazio askotan ibiltzen gara, gero egiten ez diren kontzertuak lortzeko, nahiz eta ados gauden emakumeek alor horretan paper garrantzi-



Rob Zombie 2011ko Azkena Rock jaialdian. Festivalari berdintasunean aurrera egiteko klausulak jarri dizkio aurten Gasteizko Udalak.

ALBERTO CABELLO / CC-BY

tsuagoa izatearekin". Blondie eta Juliette Lewis festibaletik pasa izana jarri du jaialdiaren politikaren adibide gisa, edo iazko edizioan izan ziren Imelda May eta Lucinda Williamsen kontzertuak.

Esplikazio horiekin bukatuta, kexak: "Mundu guztiak asunto hau hutsaldu eta epaitzen du jatorria ezagutu gabe". Deitoratu du eztabaida publiko egin aurretik salaketa egin dutenek beraiekin ez kontsultatu izana. Eta azken nota gisa gaineratu du "debate honen fundamentu faltarekin harrituta" dagoela.

Sexua, mansplaininga eta rock'n'rolla

Ez da antolatzailearen jarrera bakarrik, edonor jabetuko da prentsan eta sare sozialetan gaiaz iritzia eman dutenei irakurrita. Modu nabarmenean parekide-tasunaren kontra agertzen diren iruzkinak alde batera utzita ere, asko dira emakumeek agerikoago behar luketela uste dutenei *bainak* atera dizkietenen komentarioak. "Eztabaida honek ez du zerikusirik musikarekin" esaldia izan da, segur aski, azken asteetan Azkena Roc-

ken kartela defendatzeko gehien erabili den argudioa. Baina ez bakarria: "Festivalak kontratatuko duen hurrengo emakumea *entxufatuta* dagoela susmatuko dute", esan du, adibidez, Oscar Cubillo musika-kritikariak. Gasteizko Helldorado aretoko arduradunak berriz, zera esan du kontzertuak antolatzean erabiltzen duen irizpidez: "Ez diot begiratzen emakumeak ala gizonak diren, euskaldunak ala norvegiarrak: kalitatea bilatzen dut" –ondoren, hori bai, onartu du diru publikoa jasotzen duen festival baten kasua desberdina izan daitekeela–.

Denak gizonak dira. *Mansplaining* kasuen aurrean al gaude, doktore? Joka-bide matxista hori honela definitu zuten Lily Rothmanek *The Atlantic* aldizkarian: "Zerbait esplikatzea, kontuan izan gabe entzuten duenak gehiago dakiela gaiari buruz azalpena ematen duen pertsonak baino. Gizonak emakumeekin erabili ohi duten portaera da". Kontzeptuan sakontzeko asmoz idatzi zuen Rebecca Solnit-ek *Men Explain Things To Me* liburua, nabarmenduz, besteak beste,

zein zabalduta dagoen emakumeen iritziei sinesgarritasun gutxiago ematea gizonen iritzien aldean.

Hemen aipatu ditugun arrazoitzeko moduak erreparatuta –eta gisa bereko beste hainbat–, *mansplaining* testak positibo ematen du Azkena Rocken inguruko polemika mediatikoan: musikaz "bakarrik" hitz egin nahi dute gizon batzuek, sinetsita instrumentuak jotzen dituztela izaki abstraktuek, eta ez generoa, klase soziala eta abar dauzkaten pertsonak; kritikariak ez die entxufismoaren marmurik erantsiko gizona musikaie, emakumezkoie bakarrik; eta "kalitatea" irizpide nagusi duen programatzaileak uste du hori neurtu daitekeela, ez dela sozialki eraikitako zerbait, zeinaren ondorioz, gizon askoz gehiago ikusiko dituzun eszenatoki gainean. Analisi pixka baten aurrean amiltzen diren argudio horiekin garrantzia kendu nahi izan zaio emakumeek egindako salaketa bati. Eta aukera paregabea galdu da, alor honetan hobetzeko asko dagoela onartuz, jarrera eraikitzaileagoak hartzeko. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Zer ari zaigu gertatzen?



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Oraingo gazte eroak

JOXE AZURMENDI

Enbolike, 1998

Markos Zapiainen *Zenbait terrorista* (Txalaparta, 2003) lanean aipatzen zen behin baino gehiagotan: *Oraingo gazte eroak* (Enbolike, Irun, 1998). Ez *Espainolak eta euskaldunak*, ez *Demokratak eta biolentoak*, ez Joxe Azurmendiren bibliografian nabarmendu diren gainerako izenburuak. *Oraingo gazte eroak*, gauza interesgarriak esateko gainera: “Beharbada Kronos ez da Goyak pintatu duen agure zahar terriblea, umeak jaten, eta bai gazte harro bat agure zahar gaixoak jaten?”, 1955-1965 bueltako gazteek gurean ekarri zuten haustura ilustratzeko. Behin galdetu ahal izan nion Zapiaini, Azurmendiren liburuaz baino, Joxan Elosegirekin batera sortu zuten Enbolike desagertu hartaz: “Euskarazko saiakera eta go-goeta sustatzea zuen helburu. Xoxari ordea ez genion merezi adinako garrantzirik eman eta hondoratu ginen”.

Emaizta bakar, beraz, Azurmendiren liburua, zeinak *Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz* daukan azpiztitulutzat. Liburua berez hitzaurre bat zen –Nemesio Etxanizen gutunketaren bilduma ireki behar zuena–, “han eta hemen zerbait osatu eta luzatua”. Igartzen zaio hitzaurre zela, ez da erabat garbitu: “Irakurleak laster irakurriko ditu” dio, baina gero ezin irakurri eskutitz trukea. Ez da hil ala bizikoa: testua dugu, bere horretan, irakurlearen jakin-mina asetzeko modukoa. 1955-1965 bueltako garai haren erradiografia zehatz-zehatza delako batez ere –“Batuetan pentsatzen dut (...) gure arazoa belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi behar izatea dela”–; halaber gurea Europa mailan eztabaidagai zenarekin elkarriketan jartzen duelako –“Moderniak gure

artean erakusten zuen aurpegi –eta arima– erreakzionarioaren aurka izan da, zeren aurka altxatu den gazteria Euskal Herrian ere”–; eta hori erreferentziazko autoreak aipatuz egiten delako –“Merleau-Pontyk asko inpresionatu zuen Rikardo Arregi”–.

ETAren sorrera inguruko kultur giroaz, orduan, bai, *gaurkoaz* aldiz ez da hainbeste luzatzen: “60. urteetara ari gara itzultzen berriro, nik uste. Dena da diferentea, eta dena antzekoa. Establishment kontzientzia on osoaren jabe ikaratu batek, berriz ere gazteria ero bat ezin du ulertu”. Gure esku geratzen da, hartara, 1960ko hamarkadako zenbateraino den, ez bakarrik XX. mende bukaerakoa, berdin egungo egoeraren antzekoa. Azurmendiren “Zer ari zaigu gertatzen?” galderak, gaur, jarraitzen du izaten erabat pertinentea. Halere, filosofoaren nahikaririk ez ote gauden sobera urrun oraindik: “Guk ez dugu denok berdin pentsatu, berdin ibili nahi. Euskal Herriak artxipelago bat izaten jarrai dezala nahi genuke, mila uni-bertso txiki diferente, baina edonondik edonora joatea libre –libre itsasoa–, eta irlen artean dialogoa beti bizi-bizi”. ■



Joxe Azurmendi
(Zegama, 1941)
saiogile emankorra.

» TELEGRAMA

Hilaren 21etik martxan da Bilboko **Zinegoak** festibala: aurten ere gay-lesbo-trans tematikak lantzen dituzten film onenak ikusteko parada eskainiko du jaialdiak **STOP Bakarrik hobeto?** Ba bai: bakarlarieen festibala antolatu dute Donostiako Le Bukowskin otsailaren 26an, **Nahia Zubeldia**, **Gartxot Unsain**, **Petti** eta **Raitxekin**. Sarrera 5 eurotxo **STOP** Gauerdira arteko programa hilaren 25ean Urruñan, poteo alaituarekin hasi, **XanOliveren** kontzertuarekin segi eta **Tutti Frutti DJ**arekin amaitu: mozorrotuta doazenentzat txupitok urririk **STOP**

» DISKOA

Gaztaroan erditu rock heldua

**Nevadah**

NEVADAH

Autoekoizpena



Iker Barandiaran

@IkerBarandiara

Pasa den Durangoko Azokan izan nuen talde honen berri lehenengoz. Landako kanpoan argiztatu gabeko mahai txiki bat zuten jarrita eta hantxe CD beraren sorta. Lauzpabost gazte mahaiaren bueltan eta han egoteko arrazoi bakarra: durangarrak izanda ere, Gerediagak ukatu ziela diskoa Azoka barruan saltzea. Elkartasunagatik, taldea ezagutu gabe, diskoa erosi nien eta eskertuta agertu ziren. Broma artean aipatu nien han kanpoan egoteak ikusgarritasuna gehituko ziela. Gero, etxera heltzerakoan, diskoa prezintua-kendu-gabekoan multzoan utzi nuen. Eta, hara non, duela gutxi lagun batek zuzenean ikusi zituela aipatu zidanean, entzutera jo nuen. Hala, profezia bete da.

Gaztea da taldea eta gazteak partaideak, baina dagoeneko Bizkaia aldean makina bat emanaldi egindakoa da bos-

kotea. Estreinako lan honetan kantu berriak aurkezteaz gain, taldearen hastapenetako bi pieza, amorratua-goak, ere batu dituzte. Taldeak izan duen eboluzioaren erakusle, eta uzten badiogu, eboluzionatuko duenaren atari.

Durangoko harrobian esanguratsua izan dira punk-rock eta antzeko koordinada rock-eroetan aritutako

ko taldeak. Nevadah ere eskola horren hurbilekoa (izan) da, baina kasu honetan finagoa da emaitza eta bestelako *tempo* eta ñabardurak batu ditu, bluesarenak adibidez, eta, esaterako, distortsioari uko egiten diote neurri handian. Seguruenik grabazioari berari kantuei distira handiagoa atera ahal dakiokkeen arren, emaitza aberatsa lortu du taldeak. Gustatu zait!

Mantis punk-rock rock-and-rolleroa da, erritmo eta melodiatan *Pleasure Fuckers*, *NCC*, *AEBetako punk-rocka* eta *Tequila gogora* ekartzen dituena. *By my own*-en hitzek Neil Young hezur-haragian berpizten badute ere, pisu malenkoniatsua duen rocka da, erritmo faltan ez dagoena eta gitarra indartsu zein Stiv Bators-en legatua duena. Harribitxia! *Following the lights* ere aparta iruditu zait: *tempo* oso lasai eta melodia bereizgarritik abiatuta erabat borobildutako punk-rock-and-roll argigarria da. *I'm a man* piezak, berriz, badu rock-and-rolletik, hard rocketik – *Rose Tattoo*– eta soularen esentziatik. *Don't close the door* blueseroa da erabat, arimaz eta hurrez, garatu ahala garratzu eta gaiztotzen dena.

Kantu berri horiei batu dizkiete taldearen hastapenetatik berreskuratutako bi opari anfetaminikoago hauek: *The Raunch Hands* edo *Crypt* familian erditu ahal zezaketen *Sad city blues* eta high-energytik zein *TSOOLen* dotoretasunetik jantzitako *Iggy dog* bortitza. Gaztetasunean bada ere, maila ederra taldearena eta erregistro eskaintza zabal eta egiazkoa abeslariarena. ■

Nevadah rock taldekide durangarrak.



Amazigh herriaren ahotsa

MUSIKA ETA POESIA

Amazigh herriaren musika eta poesia errezitaldia eskaini zuten Bilboko Hika Ateneoan otsailaren 10ean, Rifeko gizarteari elkartasuna adierazteko



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Dabi Piedra

Euskal Herrian bizi diren amazighen topaleku bihurtu zen Bilboko Hika Ate-nea. Maroko iparraldeko Rif eskualdetik egin dute gure arterainoko bidea haietako askok, edo haien gurasoek. Musikaren eta poesiaren inguruan, jai ederra antolatu zuten riftarrek. Baina beste asmo bat ere izan zuen ekitaldiak: Gobernuak ematen dien tratua dela eta, protestan ari dira Rif en, eta hango jende-ari elkartasuna adierazi zioten Bilbotik.

Rifeko jatorririk ez dugun entzuleontzat, berriz, beste kultura bateko hizkuntza eta adierazpide artistikoak ezagutzeko aukera aproposa izan zen gaualdi hura. Amazigh asko bizi dira gure artean, eta ia ezer ez dakigu haien inguruan! Hika Ateneoko ekitaldiak haien ospakizunetan zein borroketan murgildu gintuen.

“Gure kultura erresistentziaren kultura da”, azaldu digu Hafid-ek, saioaren antolatzaileetako batek: “Rif en borroka politiko, sozial eta kulturala dago, oinarrizko eskubideak ere ez dizkigute onartzen”. Segurtasun indarrek arrain-saltzaile gazte bat hil zuten zaborra



txikitzeo makinan eta egoerak gainez egin zuen. Herritarrek protesta ugari egiten dituzte astero eta militarrek eskualdea era itogarrian hartua dute. “Altxamendu antolatu baina baketsua da”, dio Hafidek, “oinarrizko gauzak baino ez dituzte eskatzen, Rif Marokoko lekurik baztertuena eta pobretuena baita”.

Rifeko Errepublika laburreko bultzatzaile izan zen Abd-el-Krim ezagunaren heriotzaren urteurrena gogoratzeko ekitaldia ere bazen Hika Ateneoan. Horregatik, frantziar eta espainiar botereei aurre egin zien liderraren erretratua zegoen oholtzaren alboan. Behean, Rifeko Errepublikako eta Euskal Herriko banderak elkarren ondoan. Eta amazigh herriaren ikur hori-berde-urdina ere nonahi: horman zintzilik, entzuleen txanoetan...

Artistak oholtzara igo ziren. Lehenik, Ahmed Akean kantautorearen txanda izan zen. Al-Hoceima hirian jaio zen Akean, baina European bizi da egun. Haren doinu alai eta letra konprometituak atsegin handiz hartu zituen publikoak. Amazighera ulertzen ez dugun arren, jendearen oihuak eta txaloak kontuan

izanda, badirudi artista estimatua dela Akean Rif aldean.

Ondoren, Fikri Tizakrine igo zen eszenatokira, poesia errezitatzeraz. Apal-apal, olerkiak koaderno arrunt batean idatzita zituela ekin zion lanari. Ahapal- diek aurrera egin ahala, giroa berotzen joan zen. Hor ere, hitzak ez genituen ulertu, baina azpian zeuden sentipenak bai.

Hurrengo protagonistak lau gazte izan ziren. Rifekoak ez dira, baina bai amazigh herriaren beste adar batekoak. Orain Barakaldon bizi dira eta talde bat antolatzea erabaki dute. Tresna tradizionalak erabilia, batez ere perkusioa, beren herritik ekarritako doinuak lantzen dituzte. Hauek ere amazigheraz abestu zuten.

Luze jo zuen gauak, musika eta aldarrikapen artean. Hizkuntza debekatu diete Rifeko amazighe, beren neurriko hezkuntzarik ez dute eta hedabiderik ere ez. Hortaz, musika dute beren sentipenak, kezak eta aldarrikapenak transmititzeko bidea. “Gure ondare kultural eta soziala zabaltzen laguntzen digu musikak”. ■

Hitz gezidunak

Gaia: Hatortxu Rock jaialdia

①	ADI, ERNE UGAZTUN HARAGIJALE	NAFARROAKO HERRIA NITROGENOA	MEMORIA INFORMA- TIKOA ZORRO HANDI	ELURREZKO ETXE	IKUSARAZI NAFARROAKO IBAIA	③
②				GOIEN, GARAIEN ALEZ ALE		③
④	④ EKINTZA ADIERAZTEN DUTEN HITZAK	TALDE HANDIETAN BURUKO PA- RASITOA		MUNDUKOI SAGARA, MEZAREN ERDIKO ZATI		
	JAINKO GREKOA LOREZILAREN GOIKO ZATIA	ZUHAITZ MOTA ZORAMENA		AKZIOA DROGA	A, E, I... ISRRaelGO ERREGEA (AL- DERANTZIZ)	TONA TXERRIAK
⑤	DAGO	OINAREN AZPIA KONFORME		JENTIL NAFARROAKO MENDIA	SOVIETAR ERRE- PUBLIKA SOZIALISTA SAHARAKO HERRIA	
	XAKEAN, ERREGINA HARRIBITXI BERDEXKA		SENDOA, FINKOA BEGIRADA		RADONA EUSKAL HERRIKO MENDIA	
		EDARI GASDUNA 501 ERROMATAR ZENBAKIZ		ATOMO KARGATUA PLATINOIA		
⑥	ONGI TESLA		NAFARROA BEHEREKO UDALERRIA KILOA			OXIGENOA
			ETNIARI DAGOKIONA			

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Zentsurak kolpatuta eta leku bat lortzeko arazoei aurre eginez, Uhartan egin zuten Hatortxu Rocken 4. edizioa 2002. urtean, karpa batean egin zuten lehen aldia izan zen. Talde honen itzulerak, kontzertu honetarako soilik, lagundu zuen 5.000 pertsona inguru karpan elkartzan.

② Aurten Hatortxu Rock elkartasan jaialdiak hogeii edizio beteko ditu eta uztailearen 27tik 30era Sakanako herri honetan edizio berezia antolatu dute. 2009an Hatortxu Rock 10 ere han egin zuten (irudian).

③ Iruñerriko hainbat udalek frontoia erabiltzea ukatu zieten 3. edizioan. Azkenean nafar hiriburuko frontoi honetan bildu ziren. Eta egun hartan jaio ziren Hatortxu Rock jaialdiaren ikurra eta Hatortxu izena.

④ 10. edizioan jo zuen Elorrioko talde honek. 2009ko ekainean egin zuten edizio berezi honetan 70 taldek hartu zuten parte, eta hiru egunez Sakana elkartzasunez bete zuten.

⑤ Herri honetan, 1999ko abenduaren 25ean, egin zen lehen aldiz erreprelatu eta haien senideekin elkartzasunez, euskal preso eta iheslarien dispersioaren kontrako jaialdi



Asier Sarasua-CC BY-SA

hau. Data esanguratsu batean egin zuten lehengo edizioa, eta hala, "Hator, hator neska-mutil etxera" lelo pean jaio zen.

⑥ Talde honen kontzertuan, Hatortxu Rocken izandako unerik latzenetako bat utzi zuen 7. edizioak: Nok taldeko gitarra-jolea, Gusa, oholtzatik behera erori zen eta istripuak bizi osorako lesio larriak utzi zizkion. 7. edizio hau Berriobeitin egin zuten.

Ebazpenak

E		J		D		A		A		L	
T		A		A		B		I		A	
S		O		N		D		E		R	
A		N		D		E		R		A	
I		D		A		R		O		K	
A		O		S		I		A		S	
K		S		O		I		R		M	
		I		D		A		E		A	
E		Z		P		O		A		L	
T		P		O		A		I		G	
N		I		O		A		N		O	
I		R		A		I		R		D	
K		A		I		R		S		A	
O		A		R		N		S		K	

Normand Baillargeon. Filosofo kritikoa



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Izpiritu kritikodun herritarrak lortzeko bidean, hezkuntza eta komunikabide libreak ezinbestekotzat ditu Normand Baillargeon filosofo quebecarrak. Bidea nekeza delakoan, herritarrei giltza batzuk eskaintzen ari da. 2005ean atera zuen *Petit cours d'autodéfense intellectuelle* (Autodefentsa intelektualerako ikastaro txikia) liburua, Quebecetik at ere arrakasta ezagutu duena.

“Herritarrei argi gehiegi ematea ez doa pribilegiatuen alde”



Jenofa Berhokoirigoin

Publikotik dimititurik

“35 urtez aritu naiz hezkuntza publikoan, filosofia eta hezkuntza irakasten. 2009an utzi nuen unibertsitateko postua, desadostasun gehiegi nituelako lankideekin. Mendebaldeari doakioenez, bestelakotze sakon bat bizi du hezkuntzak eta jokoan dena ikaragarria da”.

Izpiritu kritikoa garatzea duzu xede.

Aspaldiko helburua da. AEB eta Europari doakioenez, Argien Garaian kausitzen dugu ideia honen oinarria. Zer nolakoa izango da demokrazia? Zeinek hartuko ditu erabakiak? Estimatu handikoa dudan Nicolas de Condorcetek eta gisa bereko beste batzuek erantzun argia eman zieten galdera horiei: herritar argituak ukan nahi baditugu, izpiritu kritikoa behar dute, eta horretarako ezinbestekoa dugu irakaskuntza publikoaren garapena. Laster garatu zen aurkako erreakzio bat, herritarrei argi gehiegi ematea ez zihoalako pribilegiatuen alde.

Beti horretan gara.

Horregatik da helburua beti hor. Propaganda bat ezagutzen jakin behar dugu, komunikabideek edota hezkuntza mota batek engainatzen utzi gabe. Aipatzen ari naizena ez da abstraktua. Begira beroketa klimatikoaren erronka potoloari. Gezurrean oinarritu mezu bat lantzen ibili dira petrolio konpainiak. Donald Trumpen atzerri-politiken arduraduna klima aldaketa ukatzen ari da.

Izpiritu kritikoa ahulduz doalako markak dira Trumpen irabaztea, Le Penen mehatxua, Brexitaren garaipena?

Izugarri konplexua eta zaila den fenomeno baten aurrean gara. Iritzi publikoaren prestakuntza batek ahalbidetu du Trumpen garaipena. Desberdintasunak ziztu bizian emendatu izanak, elkarriketa demokratikotik asko baztertu izanak, langabezia emendatu izanak... Horrek guztiak eta Alderdi Errepublikarraren azken 30 urteetako lanak logikoki ekarri dute Trump boterera. Herritarrek diotenari begiratu behar zaio.

Zer diote?

Berdintasuna eta hobekuntza hitz emana izan zitzaizen klase ertain eta ertain-apaleko horiek engainatuak izanaren sentimendua dute. Haserre dira eta edonor entzuteko prest dira. Ezinegon sentsazio hori sentitzen da herrialde anitzetan. Herritar horiek entzuteko ardua du ezkerak.

Ezkerra salaketan azkar baina proposamenetan ahul dela deitoratu ohi duzu.



“Berdintasuna eta hobekuntza hitz emana zitzaizen klase ertain eta ertain-apalek engainatuak izanaren sentimendua dute. Haserre dira eta edonor entzuteko prest dira, Trump esaterako. Herritar horiek entzuteko ardura du ezkerrek”.

ZONNEOCCUPEE.COM

Proposamen eraikitzaileak urri ditugu ezkerrean. Ezkerra, honen ala haren kontra dela jakin ohi dugu. Erraza da erratea. Kontua da lana galdu duenak ala pobrezian denak aski argiki dakiela hori! Proposamen baikorrak eta alternatibak proposatzeko gai izan behar gara.

Autokritikan dea ezkerra?

Damugarri zait erratea baina ez dut aski nabaritzen autokritikarik. Ezkerrearen baitan dagoen atzera-egite moralala ere deitoragarria zait. Mendebaldeko unibertsitate anglofonoen baitan, mintzatzea debekatzen ari da ezker moralizatzaile bat, erratan dena ez duelako gustuko. Anarko-sindikalista naiz eta hitz egiten edota proposamenak egiten aritu gara betidanik. Lan-museoak edota lan-poltsak horretarako guneak ziren. Pena da ez dela gehiago autogestioaz hitz egiten.

Ezinbestekotzat dituzu komunikabideak.

Komunikabideen kontzentrazioa, publicitate bitarteko finantzamendua... “Komunikabideen modelo propagandista” batean garelako diote Noam Chomsky eta

Edward Hermanek. Menderatzaileen interesak islatzen dituen munduaren ikusmoldea proposatzen ari dira. Egoera larrian gara eta sekular bano gehiago behar ditugu komunikabide aske eta independenteak. Maleruski, ahurtara bat besterik ez da gelditzen.

Komunikabide publikoei doakienez, zer diozu?

Anarkista izanik ere, aitortu behar dut beharrezkoak ditugula. Igande goiz gutziz aritu nintzen bost urtez Radio Canada irrati publikoan filosofiaz hitz egiten. Ez zuten anitz komunikabidek arrisku hori hartuko! Komunikabide pribatuek ez bezala, nahi duten eskaintza egiteko aukera eta luxua dute publikoek.

Hezkuntza publikoaren bestelakotzeaz bi hitz?

Negozioen munduaren partetik presio handia sentitzen da, bere zerbitzuko nahi du hezkuntza. Oso argi da hori AEBetan, interes ekonomikoak unibertsitateetan sartuak dira. Ikerketak finantzatzeko joera azkarra ere badute.

Diruztatu duenaren esku geratzen dira emaitzak eta gaiaren hautaketa. Egoera nahasgarrian gara.

Autodefentsa intelektualaz idatzi zenuen liburu bat 2005ean.

Hizkuntzaz, sofismoaz, zenbakiei buruzko jakitateak bildu nituen liburu horretan. Beti izpiritu kritikoa segurtatzeko tresnak emateko ideiarekin.

Arrakasta handiko liburua.

Jendeak badaki jasotzen dituen informazio anitz galdekagarriak direla eta entzuten ez diren kontra-argumentuak ere badirela. Hori horrela, haien egoera hobetzeko eta mundua ulertzeko tresnen bila dabilta. Horrela azaltzen dut arrakasta hori. Beste hein batean, Chomskyren ideien arrakasta ere honela esplikatu daiteke: tresnak ematen dizkigu, ezagutzen ez genituen perspektiben berri ematen digu. Zinez nahikeria behar da gaur egungo egoera kaskarrak ez ohartzeko! Galdekatzea bultzatzeko eta erantzuteko tresnak eta azarnak behar ditugu. ■



MASKARADETAKO AZKEN ALBISTEAK

Allande Uros Mukilüçe berriemaile bereziaren eskutik



Erandioko Iñaki mutil jator eta ohituren zalea, buhame eta kauteren azpian. "Ederra izan da maskaradak hain hurbiletik ikustea", esan digu gero, ospitaleko ohetik.

- Maskaradetara zihoan Barakaldoko autobusaren GPSa lehertu egin da Altzürükü hitza sartzen saiatzean.
- Hegoaldeko manex batek dirua itzul diezaiotela eskatu du, ez duelako tutik ere ulertu. "Euskaraz zela esan zidaten", argudiatu du gizajoak.
- Animalien aldeko talde batek pankarta zabaldu du Müskildin zamaltzaina zikiratu dutelarik. Zaldi barruko dantzariak hankartea osorik zuela erakutsi arte ez dira lasaitu.
- Gasteiztar bati premiazko ebakuntza egin behar izan diote eztarrian, xorrotxen tonu berean kantatzen ahalegindu eta gero.
- Zestoako Amaiak Kabanaren pherediküaren sei hitz ulertu ditu. "Pozik nago, iaz baino bi gehiago dira!", adierazi dio Kanalduderi.

SAREAN ARRANTZATUA

Denon artean ekar ditzagun etxera



Eskuak airean, fadafakak!



Mario Fernandez Bizkaiko Infanta izendatuko dute, epaitegian lagunduko duelakoan

Mario Fernandez harrapatu dute Bilboko ile-apaindegi batean burua ilehori platinokolorez tindatzen eta, behin lan hori bukatuta, koroa txiki bat jantzita kalera ateratzen. Zuzenbide-adituen arabera, Kutxabankeko presidente ohiak guztiz aldatu nahi du bere burua defendatzeko ildo "Cabieces auzia"n, azken tendentzia monarkikoei segiz. Estrategia berriaren lehen urratsa Espainiako Cristina infantaren itxura hartzea da, ondoren "nik ez

nekien ezer, paga dezala kontua ondoko pringau honek" esateko, betiere gure iturri juridikoen ustez. Bestelako iritzia du moda kontuetan aholkulari dugun Leire Nabarnizek: "Mario Fernandezek bi aukera zeuzkan bere Corleone-style zaharkitu hori aldatzeko: bibotea luzatzen utzi eta Super Marioren antza hartu ala Maddonnak markatutako kanona jarraitu. Argi dago 'anbizio ilehoriaren' aukerak askoz trendyagoa dela".





ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com